



Lan baldintzak,
lan istripuak
eta gaixotasun
profesionala:
EAE-ko biztanleria
migratzailearen
eta autoktonoaren
alderaketa genero
ikuspegitik



Lan baldintzak,
lan istripuak eta
gaixotasun profesionala:
EAE-ko biztanleria
migratzailearen
eta autoktonoaren
alderaketa genero
ikuspegitik



Barakaldo, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa OSALANeko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de OSALAN:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of OSALAN:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

- Izenburua:** Lan baldintzak, lan istripuak eta gaixotasun profesionala: EAE-ko biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren alderaketa genero ikuspegitik
- Argitaraldia:** 1.a. 2024ko maiatza
- Ale-kopurua:** 100 ale
- ©** Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
- Argitaratzailea:** OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita Bidea z.g. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).
- Internet:** www.osalan.euskadi.eus
- Egileak:** Yolanda González-Rábago, Unai Martín, Erika Valero, Iratxe López-López de Araya: Osasun Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea-OPIK/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
- Fotokonposizioa eta inprimaketa:** Fotocomposición IPAR, S. Coop.
Zurbaran kalea 2-4 - behea. 48007 Bilbao (Bizkaia).
- ISBN:** 978-84-19165-17-6
- e-ISBN:** 978-84-19165-18-3
- Lege-gordailua:** LG BI 00390-2024



Lourdes Iscar Reina

Aurkezpena

Lan-merkatua hainbat ardatzen arabera segmentatuta dago (sexua/generoa, jatorria, migrazio-egoera, adina, dibertsitate funtzionala eta sentSORIALA), eta desberdintasunak eragiten dituzte. Segmentazio horiek, ezinbestean, ondorio desberdinak dituzte laneko osasunean: arriskuekiko esposizio desberdinak, arriskuen pertzepzio desberdinak, estaldura desberdinak, osasunerako kalte desberdinak lan-eremuan (lan-istripuak, gaixotasun profesionalak, etab.).

Joera horien eta beraien ondorioen jakitun, Osalanek honako ekintza hau jaso zuen 2023ko kudeaketa-planean: «Migratzaileen lan-baldintzen, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalaren egoera genero-ikuspegitik aztertzea» (5.17. ekintza).

Azterlan hori garatzeko, UPV/EHUko OPIK Osasunaren Determinatzaile Sozialei eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea kontratatu zen. Talde horrek argitalpen honetan jasota dakarzkizuegun lehen argazki bat egin du migratzaileen, emakumeen eta gizonen, laneko segurtasunari eta osasunari buruz, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat inkesta eta estatistika aztertuta, bai eta bibliografia-bilaketa eta adituei kontsulta eginda ere.

Beste datu interesgarri batzuen artean, ikerketak egiaztatzen du migratzaileek bertakoek baino lan-baldintza okerragoak dituztela, bereziki emakume migratzaileek, eta horrek laneko arriskuen eraginpean egotean eta jasaten dituzten kalteetan eragiten duela. Bestalde, ikusi da lan-istripuen kasuan gizon atzeritarren istripu-tasa nazionalena baino askoz handiagoa bada ere, emakume migratzaileen kasuan, bertako emakumeenak baino tasa txikiagoa erakusten dutela.

Azkenik, azterlanak zenbait jarduera zehazten ditu datu-bilketa hobetzeko eta ikerketa-ildo berriei ekiteko, biztanleria migratzaileak osasunari eta lan-



arriskuen prebentzioari dagokienez duen egoera hobeto ezagutu ahal izateko, eta hori guztia pertsona guztien babes hobea eta berdintasunezkoagoa bermatzeko.

Lourdes Iscar Reina
OSALAN-Laneko Sergurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen
zuzendari orokorra

Aurkibidea

Taulen aurkibidea	11
Grafikoen aurkibidea	13
1. Sarrera	17
2. Helburuak eta metodologia	23
2.1. Ikerketa helburuak	23
Helburu zehatzak	23
2.2. Metodologia	24
Ikerketa diseinua	24
Datu-iturriak (1. eta 2. helburuak)	24
Datuen analisia	27
Delphi metodoaren bidezko azterlanaren metodologia	28
3. Lan-baldintzak eta lan-arriskuekiko esposizioa: biztanleria autok- tonoaren eta migratzailearen arteko desberdintasunak	31
3.1. Enplegu-baldintzak	31
3.2. Lan-giroaren baldintza fisikoak	40
3.3. Arrisku ergonomikoekiko esposizioa	41
3.4. Arrisku higienikoekiko esposizioa	45
3.5. Segurtasun arriskuekiko esposizioa	46
3.6. Arrisku psikosozialekiko esposizioa	48
Lan-edukia	49
Lan-karga eta -erritmoa	50



Lan-denbora	50
Kontrola eta parte-hartzea	52
Erakunde-kultura	53
Harreman pertsonalak	55
Garapen pertsonala	56
Elkarreragina etxea-lana	57
Loa	58
3.7. Prebentzio-jardueretan parte hartzea	59
4. Lan istripua eta gaixotasun profesionala: biztanleria nazionalaren eta atzerritarraren arteko desberdintasunak	63
4.1. Biztanleria nazionalaren eta atzerritarraren arteko ezberdintasunak lan-istripuetan	63
Istripu tasak eta zifrak 2021-22an	64
Istripu zifra eta tasen bilakaera (2016-2022)	70
Ezberdintasunak lan-istripuetan, nazionalitatea eta sexuaren arabera (2019-2022)	75
Ezberdintasunak lan-istripuetan nazionalitatea, adina eta sexuaren arabera (2019-2022)	78
4.2. Ezberdintasunak gaixotasun profesionaletan biztanleria nazionalaren eta atzerritarraren artean	84
Gaixotasun Profesionalen zifrak eta tasak 2021-22an	84
Gaixotasun profesionalen zifren eta tasen bilakaera (2016-2022)	86
Ezberdintasunak gaixotasun profesionaletan, nazionalitatea eta sexuaren arabera (2019-2022)	87
5. Lehentasunezko ikerketa-ildoak eta datuak biltzeko proposamenak biztanleria migratzailearen laneko osasuna aztertzeko	89
5.1. Ikerketa-ildoen proposamenak	90
Ikerketa-ildoak eta okupazio sektoreak identifikatzea	90
Ikerketa-ildoen eta okupazio-sektoreen lehenespena	92

5.2. Datu-bilketa hobetzeko proposamenak	98
Lan osasuneko datu-iturrietan informazioa sartzea	99
Datu-iturrietan biztanleria migratzaileari buruzko informazioa sartzea	100
6. Ondorioak	101
Lan baldintzak eta lan arriskuekiko esposizioa	101
Lan-istripuak	104
Gaixotasun profesionalak	105
Lehentasunezko ikerketa-ildoak	105
Datuak biltzeko hobekuntzak	106
7. Erreferentzia bibliografikoak	109
8. Eranskina: Ezberdintasunak ikerketa-lerroak lehenestean dauden aldeak adituen sexuaren arabera	115
Lehentasunezko ikerketa-lerro orokorrak parte-hartzailearen sexuaren arabera	116
Lehentasunezko ikerketa-lerroak genero-ikuspegitik parte-hartzailearen sexuaren arabera	117
Lehentasunezko sektore eta lanbide espezifikoen lehenestea parte-hartzailearen sexuaren arabera	118

Taulen aurkibidea

1. taula.	Astean lan egindako ordu kopuruaren estatistika deskribatzaileak, jaioterria eta sexuaren arabera	39
2. taula.	Lan (gordina, estandarizaturia eta adin-taldeka) istripuen tasa (totalak eta mota eta larritasunaren arabera) nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. Guztira eta ratioa (atzerritarra/nazionala). 2021-2022	65
3. taula.	Lan-istripuen kopurua, larritasuna, nazionalitate, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	69
4. taula.	Lan-istripuen tasa, larritasuna, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	70
5. taula.	Lan-istripuen kopurua, larritasuna eta nazionalitatearen arabera. 2016-2022	74
6. taula.	Lan-istripuen tasa, larritasuna eta nazionalitatearen arabera. 2016-2022	75
7. taula.	Lan-istripuen tasa, larritasuna, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022	78
8. taula.	Gaixotasun profesionalen tasa (gordina, estandarizaturia eta adin-taldeka), nazionalitatea eta sexuaren arabera. Guztira eta ratioa (atzerritarra/nazionala). 2021-2022	85
9. taula.	Adituek lehenengo txandan identifikatutako lehentasunezko ikerketa-ildo orokorrak	90
10. taula.	Adituek lehen txandan identifikatutako lehentasunezko ikerketa-ildoak genero-ikuspegitik Adituek lehen txandan identifikatutako lehentasunezko sektore eta okupazio espezifikokoak	91
11. taula.	Adituek lehen txandan identifikatutako lehentasunezko sektore eta okupazio espezifikokoak	92

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa, lanbide-egoera, jaioterria eta sexuaren arabera	33
2. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa lanbide-kategoria, jaioterria eta sexuaren arabera	34
3. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa, lan-eduki nagusia, jaioterria eta sexuaren arabera	35
4. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa, kontratu mota, jaioterria eta sexuaren arabera	36
5. grafikoa. Gizarte Segurantzaren alta emandako kontratua duten biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	37
6. grafikoa. Lanaldi partzialeko kontratua duen biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	38
7. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa lanarekiko gogobetetze-maila, jaioterria eta sexuaren arabera	39
8. grafikoa. Zikinkeria eta hezetasun baldintzetan eta aire-lasterrekin lan egiten duten biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	40
9. grafikoa. Osasun-egoera okerrean, kanpora begira egon gabe eta argiztapen urriarekin lan egiten duten biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	41
10. grafikoa. Arrisku ergonomikoen (zutik egotea, jarrera neketsua eta oinezko joan-etorriak) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	42
11. grafikoa. Arrisku ergonomikoen (zama astunak, esfortzu fisikoak, bibrazioak edo astinduak) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	43

12. grafikoa.	Arrisku ergonomikoen (jantziak aldatzea, mugimenduen errepikapena, pertsonak mugitzea) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	44
13. grafikoa.	Arrisku ergonomikoen (pantaila begiratu, ikusmena behartu, zarata) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	44
14. grafikoa.	Arrisku higienikoen (keak, hautsa, produktu toxikoak arnastea, produktu toxikoak manipulatzeko) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	45
15. grafikoa.	Arrisku higienikoen (erradiazioak, infekzioa, gorputz jarioak edo hondakinak manipulatzeko) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	46
16. grafikoa.	Segurtasun arriskuen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa (lehergaien manipulatzeko, materialek harrapatzea, altueratik erortzea, deskarga elektrikoa) jaioterria eta sexuaren arabera	47
17. grafikoa.	Segurtasun-arriskuen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa (erredurak, makinek eragindako zauriak, erremintek eragindako zauriak, zirkulazio-istripua), jaioterria eta sexuaren arabera	48
18. grafikoa.	Lan-edukiari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	49
19. grafikoa.	Lan-kargari eta -erritmoari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	50
20. grafikoa.	Lan-denborari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa (1), jaioterria eta sexuaren arabera	51
21. grafikoa.	Lan-denborari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa (2), jaioterria eta sexuaren arabera	52
22. grafikoa.	Kontrolari eta parte-hartzeari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	53
23. grafikoa.	Erakunde-kulturarekin lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa (1), jaioterria eta sexuaren arabera	54
24. grafikoa.	Erakunde-kulturarekin lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa (2), jaioterria eta sexuaren arabera	55

25. grafikoa.	Harreman pertsonalei lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa, jaioterriaren eta sexuaren arabera	56
26. grafikoa.	Garapen pertsonalari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	57
27. grafikoa.	Etxe-lanaren arteko elkarreraginaren (ordutegi bateragarritasuna) arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	58
28. grafikoa.	Loan eragina duten kezkei lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera	59
29. grafikoa.	Prebentzio-jardueretan parte hartzen duen biztanleriaren ehunekoa (1), jaioterria eta sexuaren arabera	60
30. grafikoa.	Prebentzio-jardueretan parte hartzen duen biztanleriaren ehunekoa (2), jaioterria eta sexuaren arabera	61
31. grafikoa.	Lan-istripuen kopurua, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	66
32. grafikoa.	Lan-istripuen tasa, nazionalitate, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	67
33. grafikoa.	Lanaldiko lan-istripuen tasa, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	68
34. grafikoa.	<i>In itinere</i> lan-istripuen tasa, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	68
35. grafikoa.	Laneko eta lanaldiko istripuen guztizko kopurua, nazionalitatearen arabera. 2016-2022	71
36. grafikoa.	<i>In itinere</i> lan-istripuen kopurua, nazionalitatearen arabera. 2016-2022	72
37. grafikoa.	Gutztizko eta lanaldiko lan-istripuen tasa, nazionalitatearen arabera. 2016-2022	73
38. grafikoa.	<i>In itinere</i> lan-istripuen tasa, nazionalitatearen arabera. 2016-2022	73
39. grafikoa.	Lan-istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022	76
40. grafikoa.	Lanaldiko lan-istripuen tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022	77
41. grafikoa.	<i>In itinere</i> lan-istripuen tasa, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. 2019-2022	77
42. grafikoa.	16-29 urteko biztanleriaren laneko istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022	79
43. grafikoa.	30-49 urteko biztanleriaren laneko istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022	80



44. grafikoa.	50-64 urteko biztanleriaren laneko istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022	81
45. grafikoa.	Lan-istripuen tasa, mota, nazionalitate, sexua eta adin-taldearen arabera. 2019-2022	83
46. grafikoa.	Gaixotasun profesionalen kopurua, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	85
47. grafikoa.	Gaixotasun profesionalen tasa, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022	86
48. grafikoa.	Gaixotasun profesionalen kopurua eta tasa, nazionalitatearen arabera. 2016-2022	87
49. grafikoa.	Gaixotasun profesionalen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022	88
50. grafikoa.	Adituek (0-100) lehenetsi beharreko ikerketa-ildoei (desberdintasunak eta arriskuekiko esposizioa) esleitutako puntuazioen batez bestekoa	93
51. grafikoa.	Adituek (0-100) lehenetsi beharreko ikerketa-ildoei (araudia eta lan-harremanak) esleitutako puntuazioen batez bestekoa	94
52. grafikoa.	Adituek (0-100) genero-ikuspegitik lehenetsi beharreko ikerketa-ildoei emandako puntuazioen batez bestekoa	96
53. grafikoa.	Adituek (0-100) lan-baldintzei dagokienez ikerketarako lehentasunezkoak diren sektore edo lanbideei esleitutako puntuazioen batez bestekoa	97
54. grafikoa.	Adituek (0-100) osasunerako arriskuei dagokienez ikerketarako lehentasunezko sektoreei edo lanbideei emandako puntuazioen batez bestekoa	98

1. Sarrera

Osasunari hainbat gizarte-faktorek eragiten diote, eta faktore horiek baliabide material, erlazional eta sinboliko ugari eskuratzeko eta gozatzeko aukera zehazten dute, eta, azkenean, biztanleriaren osasun-egoera baldintzatzen dute. Osasuna eta baldintzatzen duten faktoreak ulertzeko gizarte-eredu batetik abiatuta (Solar & Irwin, 2010), enplegua eta hura garatzeko baldintzak, baita pertsoneri eragiten dizkien arriskuak ere, gizabanakoen osasun-egoera zehazten du, eta, aldi berean, osasun-desberdintasunak ezartzen ditu gizartetaldeen artean (Whitehead & Dahlgren, 2007).

Hala, gizarte garaikideetan, lan ordaindua osasunaren gizarte-baldintzazailatzat hartzen da, eta osasun-egoera ona izateko beharrezkoak diren baliabideak eman ditzake, eta, aldi berean, gaixotasunaren edo osasunerako arriskuen iturri izan daiteke, bereziki lan hori prekarioa denean eta/edo baldintza desagokietan egiten denean (Benach *et al.*, 2014). Ildo horretan, azken hamarkadetan, behin-behinekotasuna, soldata txikiak, lan-eskubiderik eza eta abar ezaugarri dituzten ezohiko enplegu-formak sartu eta finkatu dira, «lan estandarra» deiturikoaren –mugagabea, lanaldi osokoa eta lan-eskubide batzuei lotuta dagoena– kontrara, eta horrek erakutsi du eragin negatiboa duela langileen osasunean (Utzet & Valero, 2019).

Gainera, enplegu baldintza prekarioak lan-baldintza okerragoekin eta hainbat motatako lan-arriskuen eraginpean egotearekin lotuta daude; besteak beste, arrisku ergonomikoak, segurtasunekoak, higienikoak edo psikosozialak, osasunean kalteak eragiten dituztenak, bai lan-istripuak, bai gaixotasun profesionalak, osasun fisiko eta psikikoko arazoak, bai eta lan-hilkortasuna ere.

Biztanleriaren beste osasun baldintzatzaile batzuk bezala, enpleguaren, lanaren eta lan-arriskuen baldintzak ez daude berdin banatuta biztanleriaren artean, eta horrek osasuneko gizarte-desberdintasunak eragiten ditu. (Comisión para Reducir las Desigualdades Sociales en Salud, 2010). Enpleguari dagozkion osasun desberdintasunekin lotura handiena duen desberdintasun-ardatzetako bat biztanleriaren migrazio-estatusa da. Izan ere, Europan, etorkinak hartzen dituzten beste testuinguru batzuetan bezala, langile migratzaile gehienek prestakuntza txikiko enpleguetan egiten dute lan (OECD/European Union, 2016), eta gainordezkatuta daude enplegu-baldintza prekarioak dituzten okupazioetan, egun edo ordukako kontratuekin, benetako lan-baldintzetara egokitzen ez diren kontratuekin edo, baita lan-kontratu batek babesten ez dituen lanekin (Benach *et al.*, 2011).

Era berean, langile migratzaile gehienak osasunerako baldintza txarrak dituzten lanetan aritzen dira, 3D lanak deiturikoetan (dangerous, dirty, demanding/degrading, ingelesezko sigletan). Lan horietan, esleitutako zereginak kostu handienekoak, neketsuenak, eskuzkoenak eta fisikoki zorrotzenak dira, ordu-tegi eta txanda txarrenekin, lan malgu eta erritmo jarraituekin (Arici *et al.*, 2019; Porru & Baldo, 2022).

Biztanleria migratzaileak enpleguari dagokionez duen egoera debalatuata azaltzen duten hainbat faktore daude, besteak beste, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak, titulazioen homologazioarekin edo aurretiko lan-esperientziarekin lotutako arazoengatik, hizkuntza-oztopoengatik edo gizarte-laguntzako sare txikiagoengatik lan-merkatuan egiturazko diskriminazio egoerak errazten dituztenak (Mahía & Medina, 2022).

Horrela, azterlan ugari agerian utzi dute, bai nazioartean, bai Espainiako testuinguruan, jatorri migratzaileko biztanleriaren eta bertako biztanleriaren artean dauden desberdintasunak lan-osasuneko hainbat dimentsiotan, hau da, bai enplegu- eta lan-baldintza prekarioei eta lan-arriskuekiko esposizioari dagokienez, bai osasunari eta horren ondorioei dagokienez (Hargreaves *et al.*, 2019; Sterud *et al.*, 2018). Desberdintasun horiek, askotan, biztanleria mota bakoitza kontzentratzeko joera duten okupazio-sektoreekin lotzen dira, baita betetzen duten lanpostu-motarekin ere. Azterlan batzuek erakutsi dute nola egon enplegatuta nekazaritza-sektorean (Urrego-Parra *et al.*, 2022), ostalaritzan (Ministerio de Sanidad Consumo y Bienestar Social, 2019) edo etxeko eta zaintzako zerbitzuan (Ahonen *et al.*, 2010; de Diego-Cordero *et al.*, 2020) –langile migratzaileen presentzia handia duten sektoreak, desarautze eta lan-prekarietate handiagoa dutenak–, biztanleria migratzailearen osasunerako arrisku-faktorea dela.

Lan-baldintzei dagokienez, eskuzko lanetan ari den biztanleria migratzailea autoktonoek baino arrisku handiagoa dute arrisku ergonomikoen aurrean,

besteak beste, bibrazioak, zarata edo beroa, baita jarrera neketsuak jasateko, zama astunak mugitzeko edo altxatzeko eta zutik egoteko arriskua ere (Ronda Pérez *et al.*, 2012). Era berean, biztanleria autoktonoarekin alderatuta, biztanleria migratzaileak arrisku psikosozial gehiago izaten ditu, hala nola kontrol-maila txikiak, lan-erritmo handia, laguntza eskasa eta lankideen estimazio txikia, besteak beste (Font *et al.*, 2012; Ronda Pérez *et al.*, 2012).

Lan-arrisku eta -baldintza prekarioekiko esposizio horren ondorioz, hainbat ikerketak adierazi dute langile migratzaileek, bertako biztanleriarekin alderatuta, emaitza okerragoak dituztela osasun mentalean, hautemandako osasunean, heriotza-tasa perinatal handiagoan, baita lan-istripu tasa handiagoak eta gaixotasun profesionalak (Arici *et al.*, 2019; Hargreaves *et al.*, 2019). Bereziki sendoak dira biztanleria migratzailearen lan-istripuen tasa handienak (Porru & Baldo, 2022; Sterud *et al.*, 2018), nahiz eta istripuen erregistroei buruzko datuetan oinarritutako azterketek normalean ez dituzten kontuan hartzen biztanleria zaugarria, hala nola kontraturik gabekoak edo egoera irregularrean daudenak. Hala, meta-analisiarekin egindako ikerketa batek erakutsi zuen nazioarteko langile migratzaileen % 47k lanarekin lotutako gaixotasunak izan zituztela, eta % 22k lan-istripuren bat eragin zutela (Hargreaves *et al.*, 2019). Espainiako testuinguruan, hainbat azterlanek adierazten dute biztanleria migratzaileak laneko istripu-tasa handiagoa duela autoktonoak baino, nahiz eta emaitzak 2000ko hamarkadako datuetan oinarrituta egon (Ahonen & Benavides, 2006; López-Jacob *et al.*, 2008; Rubiales-Gutierrez *et al.*, 2010).

Bestalde, azterlan batzuek, batez ere Eskandinaviako herrialdeetan, erakusten dute biztanleria migratzaileak laneko bajen tasa handiagoak dituela, neurri batean okupazioan dauden desberdintasunek eta bajaren kausaren aurreko osasun-egoera okerragoak azaltzen dituzte (Brekke & Schøne, 2014; Hansen *et al.*, 2014); Espainiako testuinguruan, berriz, luzetarako azterketa batek erakutsi zuen pertsona migratzailek lan-bajak izateko aukera txikiagoa zutela, beharbada lan-ezgonkortasun handiagoagatik eta, ondorioz, enplegua galtzeko beldurragatik (Soler-González *et al.*, 2008). Era berean, Espainian egindako azterlan batek adierazi zuen biztanleria migratzaileak desgaitasunagatik pentsioa jasotzeko aukera txikiagoa duela, lan-baldintza okerragoak izan arren (Solé *et al.*, 2013).

Migrazio estatusa lan osasuneko desberdintasunak ulertzeko funtsezko ardatza den bezala, generoa oinarritzko elementua da biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren arteko desberdintasun horiek aztertzeko. Enplegu- eta lan-baldintzen, lan-arriskuen eta osasunari egindako kalteen azterketa begirada intersektional batetik egitea ezinbestekoa da gizarte-estratifikazioko ardatz ezberdinek aldi berean nola jokatzen duten ulertzeko; izan ere, ardatz horiek

arrisku espezifikoaren eraginpean jartzen dituzte pertsonak, eta arrisku horiek ez dira soilik gizarte kategoria bakoitzeko kide izatearen arriskuen emaitza metatua, kasu honetan migratzailea eta emakumea (Bauer, 2014).

Lan-osasunari buruzko azterlanetan genero-ikuspegia aplikatzeari dagokionez, urrats garrantzitsuak egin dira duela zenbait hamarkada geroztik (Messing *et al.*, 2003), lan-baldintzetan, (Campos-Serna *et al.*, 2013), lan-arriskuetan (A Biswas *et al.*, 2021) edo osasun-kalteetan genero-desberdintasunak hautemateaz gain (Aviroop Biswas *et al.*, 2022), okupazio epidemiologiaren azterketa genero-ikuspegitik berriz aztertze eta zabaltzeko beharra erakutsi dute (Artazcoz *et al.*, 2007). Horrek esan nahi du, emakumeen lanekin edo feminizatuagoekin zerikusia duten osasun-arazoei arreta jartzeaz gain (Messing & Mager Stellman, 2006), genero-erolek gizonen lan osasunean duten papera ere ikertu behar dela, normalean emakumeek baino istripu-, desgaitasun- eta heriotza-tasa handiagoak baitituzte (Stergiou-Kita *et al.*, 2015).

Hala, genero-ikuspegia jorratu duen ikerketaren garapen horrek emakumeen lan-osasunari buruzko berariazko azterlanetan ere izan ditu fruituak, bereziki feminizatutako sektoreei lotutakoak, hala nola, etxeko eta zaintzako lanari (Theodore *et al.*, 2018) edo osasun-lanbideei buruzkoak (Ballester Arias & García, 2017). Hain zuzen ere, horrelako lanbideetan daude emakumeak lan-ahultasun handieneko egoeretan, eta horietan ardatsu dira generoaren eta migrazio estatusaren begirada intersektionala osatzen duten ikerketak, hala nola nekazaritzaren sektorean (Alberti *et al.*, 2023; Escrivà, 2022) edo etxeko eta zaintzako lanetan (Ahonen *et al.*, 2010; de Diego-Cordero *et al.*, 2020; Malhotra *et al.*, 2013). Azken kasu horretan, adibidez, eskuragarri dagoen literaturak hainbat motatako arrisku ergonomiko, higieniko eta psikosozialen eraginpean jarri ditu emakume migratzaile horiek, eta, gainera, enplegatzailearekiko duten mendekotasun- eta desahalduntze-maila identifikatu du, ez baitute herrialdean bizitzeko legezko dokumentaziorik (Ahonen *et al.*, 2010; de Diego-Cordero *et al.*, 2020). Horrek esan nahi du emakume horiek aukera gehiago dituztela enplegatzailearen aginduak onartzeko, lan-kontratuan ezarritakoa edo alde aurretik modu informalean hitzartutakoa ez bada ere, enplegua galtzeko beldurragatik edo bestelako errepresaliengatik, *mendekotasun ultra-kontratuko* testuinguru batean (Salazar Martínez de Iturrate, 2019).

Beraz, lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko ezagutzan genero-ikuspegitik aurrerapenak egin diren arren, eta aztergai-eremu horretan biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren artean dauden desberdintasunei buruzko ebidentzia gero eta ugariagoa den arren, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan dagoen egoeraren

azterketari heltzea, ikuspegi interseksional batetik, gizarte-estratifikazioko bi ardatz horien arteko elkargunean sortzen diren desberdintasunak aztertzeko, enplegu- eta lan-baldintzei, lan-arriskuen esposizioari eta osasun-kalteei dagokienez.

2. Helburuak eta metodologia

2.1. Ikerketa helburuak

Ikerketaren helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lan-osasunaren arloko biztanleria migratzailearen egoera aztertzea izan zen, eta biztanleria autoktonoarekin alderatzea ere, enplegu-baldintzak eta lan-baldintzak, lan-arriskuak eta osasunari egindako kalteak kontuan hartuta. Azterlanak, biztanleria migratzailearen eta biztanleria autoktonoaren arteko konparaziozko ikuspegia erabili du, eta datuen azterketari ikuspegi intersektzionaletik heldu dio, eta horrek, desberdintasunak identifikatzea ahalbidetu du genero ardatzei eta migrazio estatusari dagokionez¹.

Helburu zehatzak

1. EAEko biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren lan-baldintzak alderatzea.
2. EAEko biztanleria migratzailearen osasunean, lan-istripuetan eta gaixotasun profesionalean izandako kalteak deskribatzea, sexuaren arabera eta biztanleria autoktonoarekin alderatzea.

¹ Datu-iturri bakoitzeko aldagaien eskuragarritasunaren arabera, biztanleriaren migrazio-estatusa identifikatu da, jaioterria oinarri hartuta, Euskadiko 2020ko Lan Baldintzen Inkestako datuen kasuan bezala, edo nazionalitate herrialdea (nazionala/atzerriarra), lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen estatistikako datuen kasuan bezala.

3. Ikerketa-ildo berriak proposatzea, biztanleria migratzailearen lan-baldintzen eta osasun-kalteen ezagutzan sakontzeko, bai eta datu-iturrien beharrezko egokitzapenak ere, gai horri buruzko informazio-bilketa hobetzeko.

2.2. Metodologia

Ikerketa diseinua

1. eta 2. helburu zehatzei erantzuteko, azterketa kuantitatibo bat egin da, aldi baterako /denbora-joeraren diseinu deskribatzaile baten bidez, hiru informazio-iturritatik datozen bigarren mailako datuetan oinarrituta. Alde batetik, Euskal AEko Lan Baldintzen Inkesta; bestetik, Euskal AEko Lan Istripuen Estatistika; eta, azkenik, Euskal AEko Gaixotasun Profesionalek Estatistika.

Bigarrenik, eta hirugarren helburu zehatzari erantzuteko, batetik, eskuragarri dagoen literatura zientifikoaren bilaketa eta berrikuspen bibliografikoa egin da, bai eta nazioko eta nazioarteko erakundeetatik datorren literatura grisarena ere. Bestalde, adituei kontsulta egin zaie Delphi teknika erabiliz. Horren emaitzek gaiari buruzko ikerketa-ildo edo azterlan zehatz berrien egokitasuna identifikatzen eta balioztatzen lagundu dute, bai eta zenbait iturritako datu estatistikoen bilketan (inkestak eta erregistroak) hobekuntzak proposatzen ere, bai lan-osasunari buruzko datuetan migrazio jatorria neurtzeari dagokionez, bai biztanleria migratzailearen kasurako egokiak diren adierazleei dagokienez, lan-baldintzei eta lan-arriskuei dagokienez.

Datu-iturriak (1. eta 2. helburuak)

Lehenik eta behin, biztanleria migratzailearen lan-baldintzak eta horiek bertako biztanleriarekin alderatzeari dagokienez (1. helburu zehatza), Euskal AEko Lan Baldintzei buruzko Inkestaren 2020ko datuak erabili dira. Inkesta horren lagin-tamaina eta biztanleria migratzailearen azpilagina txikiak izan arren, enplegu-baldintzen, lan-baldintzen eta lan-arriskuekiko esposizioaren prebalentzien aldean zenbatespenak egin dira. Lagina 3.588 kasukoa izan da, horietatik 215 atzerrian jaiotako pertsonak ziren, hau da, laginaren % 6 biztanleria migratzailetzat hartzen da azterlan honetarako. Sexuaren arabera, 1.759 kasu gizonezkoak ziren eta 1.829 emakumezkoak, 97 (% 5,5) eta 118 (% 6,5) migratzaileak dira, hurrenez hurren. Biztanleria migratzailearen lagin-tamaina txikia denez, atal honetako emaitzak tentuz interpretatu behar dira.

Honako dimentsio eta aldagai hauek aztertu dira:

Dimentsioa	Aldagaia	
Enplegu-baldintzak	Lanbide-egoera	Kontratua altarekin GS
	Kategoria profesionala	Lanaldi partzialeko kontratua
	Lan-eduki nagusia	Astean lan egindako ordu kopurua
	Kontratu mota	Lanarekiko gogobetetzea
Lan-giroaren baldintza fisikoak	Zikinkeria	Osasun-egoera okerra
	Hezetasuna	Ez du kanpoaldera begirutzen
	Aire-lasterrak	Argiztapena
Arrisku ergonomikoak	Zutik egotea	Jantziak aldatzea
	Jarrera neketsua	Mugimenduen errepikapena
	Oinezko joan-etorri luzeak edo ohikoak	Pertsonak altxatu, mugitu, lekualdatu
	Zama astunak	Pantailari etengabe begiratu
	Esfortzu fisikoak	Ikusmena behartu
	Bibrazioak edo astinduak	Hitz egitea eragozten duen zarata
Higiene arriskuak	Keak arnastu	Erradiazioak
	Hautsa arnastu	Infekzioa
	Produktu toxikoak arnastu	Gorputz jariakinak edo hondakinak manipulatzeko
	Produktu toxikoak manipulatzeko	
Segurtasun arriskuak	Lehergaien manipulatzeko	Erredurak
	Materialek harrapatzea	Makinek eragindako zauriak
	Altueratik erortzea	Erremintek eragindako zauriak
	Deskarga elektrikoa	Zirkulazio-istripua
Arrisku psikosozialak -Lan-edukia	Informazio asko gorde	Zeregin konplexuak egitea
	Zeregin monotonoak egitea	Kontzentrazio edo zainketa zehatza jarri
Arrisku psikosozialak -Lan-karga eta -erritmoa	Lan-erritmoarekin gogobetetzetik ez	Nahiko denbora ez edukitzea

Dimentsioa	Aldagaia	
Arrisku psikosozialak –Lan-denbora	Txandakako lana	Igandeak
	Gaueko	Larunbatak
	Astean 2 atsedeen-egunetarako prestatasuna	Egunean 10 ordu baino gehiago
Arrisku psikosozialak –Kontrola eta parte-hartzea	Lan-metodoa ez aukeratzea	Lan-erritmoa ez aukeratzea
	Zereginen hurrenkera ez aukeratzea	Etenaldi, geldialdi, deskantsu momentuak ez aukeratzea
Arrisku psikosozialak –Erakunde-kultura	Ikastaroa ez egitea	Ezuste arazoak zeure kabuz konpontzeko ezintasuna
	Ez du informazio argi eta nahikoa	Kalitate-estandar zehatzei erantzuteko ezintasuna
	Lankidetzarako aukerarik ez	Zure lanaren kalitatea baloratzeko ezintasuna
	Zigorra jartzeko aukera	
Arrisku psikosozialak –Harreman pertsonalak	Indarkeria, jazarpen edo diskriminazio egoerak	Tentsio egoerak jendearekin
Arrisku psikosozialak –Garapen pertsonala	Sustapen pertsonalik ez	Gogobetetze-eza, mailaz igotzeko aukerekin
Arrisku psikosozialak –Elkarreragina etxea-lana	Ordu-tegi bateragritasuna	
Arrisku psikosozialak –Loa	Loan eragiten duten kezkak	
Prebentzio-jardueretan parte hartzea	Osasun-azterketak	Arrisku fisikoen ebaluaketa
	Segurtasun eta osasun prestakuntza	Arrisku psikosozialen ebaluaketa
	Hobekuntza babes-ekipamenduetan	Prebentzio-plana
	Hobekuntzak instalazio eta antolaketan	Bestelako jarduerak segurtasun eta osasunean

Bigarrenik, eta 2. helburu zehatzari erantzuteko, 2016-2022 aldirako lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen estatistikako datuak ustiari eta aztertu dira. Horrela, alde batetik, laneko istripuei buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez onartutako IGATT aplikazioaren datu-

basetik datoz. Azaroaren 19ko TAS/2926/2002 Aginduak ezarritako lan-istripuen parteen eredu berrietan izapidetutako datuak jasotzen ditu. Bestalde, gaixotasun profesionali buruzko datuak CEPROSS aplikazioak sortutako fitxategi estatistikotik datoz, aplikazio hori gaixotasun profesionalen parteak telematikoki jakinarazten ditu (Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia, Lan eta Immigrazio Ministerioa). Gainera, arriskuan dagoen biztanleria landunaren guztizkoa kalkulatzeko, Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak egindako Biztanleriaren jardueraren arabera sailkatzeko inkestako (BJA) datuak erabili dira. Biztanleria landun horiek kalkulatzeko, Gizarte Segurantzako afiliazio-datuak erabili ohi ditu Osalanek. Hala ere, oraingoan ezin izan dira erabili Gizarte Segurantzaren datuak, ezin izan baitira jatorriaren, sexuaren eta adinaren arabera bereizitako datuak eskuratu Euskal AEren kasuan. Horregatik, txosten honetan lortutako tasak ezin dira alderatu Osalanek argitaratutako beste batzuekin.

Datuen analisia

Euskal AEko Lan Baldintzei buruzko Inkestaren 2020ko datuak aztertzeke, aldagai guztien prebalentziak kalkulatu dira jaioterria (Espainian/atzerrian) eta sexuaren arabera. Prebalentzien arteko desberdintasunen esangurak kalkulatzeko, khi-karratu probak egin dira.

Lan-istripuei eta gaixotasun profesionali buruzko datuen kasuan, guztizko kopurua kalkulatu da, baita tasa gordin eta estandarizatuak ere. Tasa horien izendatzaileak kalkulatzeko, BJAtik lortutako biztanleria landun osoa erabili zen, urteko biztanleria lau hiruhilekoetako batez bestekoa izanik. Nazionalentzako eta atzeritarrentzako biztanleria landun osoa Eustaten webgunetik lortu zen, baina sexuaren, nazionalitatearen (espainiarra/atzeritarra) eta adinaren araberako biztanleria landunari dagokionez, inkesta horretako mikrodatuak erabili ziren. Estandarizaziorako zuzeneko metodoa erabili zen, inkesta osoaren biztanleria estandartzat hartuta.

Lan-istripu eta gaixotasun profesionalen azterketak bi denbora-gune izan ditu. Alde batetik, egoera berriena deskribatzeko, 2021eko eta 2022ko datuak elkartu dira, beraz zifra absolutuak bi urteetako datuen baturari dagozkio, eta intzidentzia bi urte horietako urteko tasa da. Bestalde, denbora-bilakaera aztertzeke, 2016-2022 aldia erabili da, zenbaki absolutuak eta nazionalitate tasak kalkulatu. Hala ere, BJAREN mikrodatuak 2019tik 2022ra bitarteko urteetarako soilik egon zirenez eskuragarri, sexuaren eta adinaren arabera bereizitako kalkuluak aldi horretarako bakarrik egin ahal izan ziren.

Garrantzitsua da azpimarratzea biztanleria migratzailearen eta biztanleria autoktonoaren identifikazio aldagaian dagoen aldea, Lan Baldintzei buruzko

Inkestaren kasuan jaioterria izan baitzen, Espainian jaiotako pertsonen eta errenta baxuko atzerriko herrialde batean jaiotakoen arteko alderaketa ahalbidetuz. Bestalde, lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak aztertzeko, nazionalitatearen herrialdea aldagaia erabili zen, ez baitago jaioterriari buruzko informaziorik, eta bereizi egiten dira biztanleria nazionala, nazionalitate espainiarra duena, eta atzerritarra, edozein nazionalitate atzerritarra duena.

Delphi metodoaren bidezko azterlanaren metodologia

3. helburuari erantzuteko, Delphi metodoaren bidezko azterlan bat diseinatu zen, biztanleria migratzailearen lan-osasunaren esparruan lehentasunezko ikerketa-ildoak ezartzeko, bai eta horri buruzko datu-bilketa hobetzeko funtsezko elementuak identifikatzeko ere, arlo horretako ikerketa eta ezagutza hobetzeko proposamenak eta gomendioak eskaintzeko helburuarekin.

Delphi metodoa prospekzio-metodotzat hartzen da, eta aditu-talde baten adostasunera hurbildu nahi du, zehaztutako gai bati buruzko azterketa eta hausnarketa oinarri hartuta (Varela-Ruiz *et al.*, 2012). Gure azterlanean, lan-osasunean eta migrazio-ikasketetan hainbat esparrutan edo jardueramailatan adituak diren pertsonak aukeratu ziren. Hala, eremu akademikoko eta ikerkuntzako pertsonen parte hartzera gonbidatu zitzairen, Estatuko zein autonomia erkidegoko erakunde publikoetako profesionalak, erakunde sindikaletakoak edo hirugarren sektoreko erakundeetakoak. Profilen hautaketak azterlanaren gaia behatzeko ikuspegi desberdinak irudikatzea bilatu zuen, hau da, ikuspegi akademikoagoetatik zein politika publikoei aplikatuagoetatik, bai eta ikerketa helburu den biztanleriarekin, hau da, langile migratzailekin, zuzeneko harremanean oinarritutako ikuspegiak ere. Guztira, 21 pertsonari bidali zitzairen gonbidapena, eta horietatik 20k parte hartu zuten azkenean (14 emakumek, 6 gizonek). Parte-hartzaileen konfidentzialtasuna eta anonimotasuna ziurtatu zen.

Delphi ikerlanak bi galdera-txanda izan zituen, galdetegi bana bidali zitzairen alde zuzeneko hautatutako pertsonen zuzenduta, epe jakin batean online bete zitezeko. Lehenengo txandan, lau dimentsiori buruzko galdera irekien galdetegi bat diseinatu zen: 1) lan-osasunaren ikerketan lehentasuna duten gaiak, euskal testuinguruan zehaztuak; 2) genero ikuspegitik lan-osasunaren ikerketan lehentasuna duten gaiak; 3) hobekuntzak lan-osasunari eta migrazioei buruzko informazio-iturrietan; eta 4) arrisku psikosozialen adierazle egokienak.

Lehen txandako lehen eta bigarren dimentsioetako galderei emandako erantzunek biztanleria migratzailearen lan-osasunaren ikerketa-gaiak identifikatzeko balio izan zuten, bai orokorrak, bai genero-ikuspegitik garrantzi berezia dutenak, bai eta biztanleria migratzailearen lan-osasuna aztertzeko

interes berezia duten sektore edo okupazio espezifikoak identifikatzeko ere. Hala, ikerketa-taldeak hainbat gaitan sailkatu zituen erantzun horiek, eta, hortik abiatuta, bigarren txandako galdetegia diseinatu zen, parte-hartzaileek gai horietako bakoitza lehentasunez sailkatzeko helburuarekin.

Bigarren txandan jasotako erantzunetatik abiatuta, emandako puntuazioen batez bestekoak kalkulatu dira, 0 eta 100 puntu artean, eta puntuazioa handiagoa denean lehentasun handiagoa emanez. Puntuazioen batez bestekoak parte-hartzaile guztientzat kalkulatu ziren, baita parte-hartzaileen sexuaren arabera ere. Horrek balio izan du lehentasunezko ikerketa-ildoak aztertzeko eta Euskal A Eren esparruan azterlan zehatzen proposamenak egiteko.

Gainera, lehen txandako hirugarren eta laugarren dimentsioetako galderei emandako erantzunetatik abiatuta, hau da, informazio-iturriari eta arrisku psikosozialen adierazleei dagokienez, datu-bilketan aurrera egiteko proposamenak atera dira, bai inkestetan eta lan-osasuneko erregistroetan, bai biztanleria migratzaileari buruzko azterlanetan.

3. Lan-baldintzak eta lan-arriskuekiko esposizioa: biztanleria autoktonoaren eta migratzailearen arteko desberdintasunak

Kapitulu honetan biztanle autoktonoen eta jatorri migratzaileko biztanleen artean lan-baldintzetan dauden desberdintasunak aztertzen dira². Zehazki, langileen egoera alderatzen da, jaioterriaren arabera eta gizonentzat eta emakumeentzat bereizita, enplegu-baldintzei dagokionez, lan-giroaren baldintza fisikoak (lan-giroaren eragozpenak esaten zaie), arrisku ergonomikoak, higienekoak, segurtasunekoak, baita arrisku psikosozialak ere, eta, azkenik, enpresek garatzen dituzten prebentzio-neurriak.

3.1. Enplegu-baldintzak

Jarraian, lanbide-egoerari, kategoriari, lan-edukiari, kontratu motari (iraupena, lanaldia, Gizarte Segurantzako alta), astean lan egindako orduei eta lanpostuarekiko gogobetetzeari buruzko enplegu-baldintza nagusiak deskribatzen dira.

² Kapitulu honetan biztanleria bereizteko erabilitako aldagaia jaioterria izan da, Espainian jaiotako pertsonak, autoktonoak izendatuak eta errenta baxuko atzerriko herrialde batean jaiotakoak, migratzaileak izendatuak bereiziz.


Lehenik eta behin, lanbide-egoeratik hasita, ikusten da, nahiz eta biztanleria gehiena sektore pribatuko soldatapekoa izan, alde handiak daudela biztanleria autoktonoaren eta jatorri migratzaileko biztanleriaren artean, eta sektore publikoan enplegua ez dela hain ohikoa azken horren artean (% 23,4 vs. % 5,6). Era berean, biztanleria migratzailearen ehuneko esanguratsu bat etxe partikularreko soldatapekoa da, ia 5 pertsonatik 1 izanik, eta % 1,4 soilik biztanleria autoktonoaren kasuan. Bestalde, biztanle autoktonoen artean % 5 bazkide kooperatibista da, eta LBI ez da erregistratzen egoera profesional horretan dauden pertsona migratzaileak. Azkenik, bi taldeek antzeko proportzioak dituzte berezko enpresako soldatapekoen artean, % 3 baino zertxobait gehiago, eta alde txikia dago ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoen artean (TRADE)³.

Gizonen eta emakumeen datuak bereizita aztertuz gero, argi geratzen da alde handia dagoela jaioterriaren arabera etxe partikularreko soldatapeko emakumeen artean, hau da, etxeko eta zaintzako zerbitzuetan dihardutenen artean. Hala, emakume autoktonoen kasuan ehunekoa % 2,6 den bitartean, proportzio hori % 32,2ra igotzen da emakume migratzaileen kasuan. Gizonen kasuan ere, etxe partikularreko soldatapekoen proportzioa handiagoa da migratzaileen artean, % 3,1 eta Espainiako estatuan jaiotako gizonen % 0,1en aurrean.

Emakumeen kasuan, biztanle autoktonoen eta migratzaileen artean alde handienak dituen beste lanbide-egoera bat Administrazioiko edo enpresa publikoko enplegua da; izan ere, gizonen kasuan bi taldeen artean 12,6 ehunekoazko puntuko aldea dago, emakumeen kasuan, berriz, aldea 22,9 puntukoa da. Azkenik, nabarmentzekoa da sektore pribatuko soldatapekoen ehunekoa berdina dela emakume autoktonoen eta emakume migratzaileen kasuan, % 61a; gizonen artean, berriz, 12 ehunekoazko puntuko aldea dago, eta lanbide-egoera hori da nagusi gizon migratzaileen artean (% 80 baino gehiago).

³ Uztailaren 11ko 20/2007 Legean ezartzen den Lan Autonomoaren Estatutuaren 11. artikulua arabera, «ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak dira jardura ekonomikoa edo profesionala irabazizko eta ohikotasunez egiten dutenak, pertsonala, zuzena eta nagusiki pertsona fisiko edo juridiko batentzat, bezero deritzona, eta harengandik gutxienez lan-etekinen eta jardura ekonomiko edo profesionalen etekinen diru-sarreraren ehuneko 75 jasotzen dutelako ekonomikoki haren mende daudenak».


1. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa, lanbide-egoera, jaioterrria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Lanbide-kategoriari dagokionez, alde handiak daude biztanle autoktonoen eta migratzaileen artean, azpimarratzekoa da jatorri migratzaileko langileen % 40 baino gehiago peoiak direla, eta, bereziki, emakumezko migratzaileen kasuan, % 53,4ra iristen dira. Hala ere, biztanleria autoktonoaren artean, lanbide-kategoriaren aniztasuna zabalagoa da, eta soilik % 11,2k du peoi kategoria. Hala, biztanleria migratzailearen artean kualifikazio txikiagoko kategoriak nabarmentzen dira, aldiz, biztanle autoktonoen artean erdi-mailako edo goi-mailako titulazioak dituztenen ehunekoa nabarmen handiagoa da (% 12 eta % 16, hurrenez hurren) biztanleria migratzailearen aldean (% 2,3 eta % 6,5, hurrenez hurren).

2. grafikoa. Biztanleriaren ehuneko lanbide-kategoria, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


Lanbide-kategoriaren arteko desberdintasunekin jarraituz, jaioterriaren arabera, modu berezian gizonentzat eta emakumeentzat (2), badirudi desberdintasunak nabarmenagoak direla emakumeen kasuan, eta autoktonoen eta migratzaileen arteko distantzia handiagoa da lanbide-kategoria guztietan. Horrela, kualifikazio txikiagoko lanbide-kategorietan, peoi gisa, bi taldeen arteko aldea ehuneko 22 puntukoa da gizonetan eta 39 puntukoa emakumeetan. Beste muturrean, kategoria kualifikatuena dituzten pertsonen artean, goi-mailako titulazioak ditzuzten arteko aldea 8 puntukoa da gizon autoktonoen eta migratzaileen artean, eta 11 puntukoa emakumeen artean.

Bestalde, lan-eduki nagusiari erreparatzen badiogu (3), biztanleria migratzailea eta autoktonoa enplegatuta dauden sektore nagusiak neurri handi batean

desberdinak dira. Hala, biztanle autoktonoen artean, lan teknikoak, zientifikoak, osasunaren eta irakaskuntzaren alorrak nabarmentzen dira, % 28,5ekin, eta lan mota hori biztanleria migratzailearen artean % 12,5 baino ez da. Alde horiek bereziki nabarmenak dira emakumeen kasuan; izan ere, sektore horietan emakume autoktonoen proportzioa handia da (% 35,5), baita merkataritza- eta kontabilitate-lanetan ere (% 33,4), baina ehuneko horiek % 11-12ra murrizten dira emakume migratzaileen artean.

Bestetik, biztanleria migratzailearen lautik bat ostalaritzan, zaintzan, garraioan eta garbiketaren sektorean ari da lanean, eta sektore horiek biztanleria autoktonoaren % 11,7 baino ez dira. Desberdintasun horiek are garrantzitsuagoak dira emakumeen kasuari begiratzen diogunean, hiru emakume migratzailetatik bat baita. Bestetik, etxeetako etxeko zerbitzuari dagokionez, aldea ere esanguratsua da, % 1,4 baino ez baita biztanle autoktonoen artean, aldiz, % 19koa jatorri migratzailekoen artean, eta bereziki emakumeen artean, emakume migratzaileen % 32,2k sektore horretan egiten du lan, eta emakume autoktonoen % 2,7k baino ez.

3. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa, lan-eduki nagusia, jaioterra eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Beste lanbide batzuen artean ere alde nabarmenak antzematen dira, eta bereziki deigarria da ekoizpen-, instalazio- eta konponketa-lanetan ari diren gizon migratzaileen ehunekoa (% 48,5), Espainiako estatuan jaiotako gizonen ehunekoarekin alderatuta (% 34,8). Azkenik, lan-antolaketa, zuzendaritza eta kontrol zereginetan, biztanleria autoktonoaren proportzioa % 11,7 da, altuagoa gizonen artean (% 16,4), eta biztanleria migratzailearen artean % 2,8 baino ez.

Biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren artean lan-prekarietateari dagokionez dauden desberdintasunak ulertzeko garrantzi handieneko lan-baldintzetako bat kontratu mota da (4. Garrantzitsua da kontuan hartzea aztertutako datuak 2020ko LBlari dagozkiola, eta, beraz, oraindik ez zirela gertatu 2021eko lan-erreformak (32/2021 Errege Lege Dekretua) ekarri zituen aldaketak.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, biztanleria autoktonoaren % 80 inguruk kontratu finkoa du modalitatearen baten barruan (iraunkorra, etena edo beste egoera batzuk), berriz, biztanleria migratzailearen artean, proportzio hori % 60tik beherakoa da. Bestalde, aldi baterako kontratua ohikoagoa da biztanleria migratzailean, hiru migratzailetik batek mota horretako kontratuak ditu, eta biztanle autoktonoen artean % 15 ingurukoa da. Azkenik, Espainiako estatuan jaiotako biztanleen artean kontraturik gabeko pertsonen proportzioa oso txikia da, % 0,2 baino gutxiagokoa, eta biztanleria migratzailearen artean, aldiz, egoera horiek biztanleriaren % 4 inguruan gertatzen dira, batez ere emakumeen artean, ia % 6.⁴

4. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoa, kontratu mota, jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

⁴ Kontraturik gabeko pertsonen buruzko datuak tentuz interpretatu behar dira, Lan Baldintzei buruzko Inkestak gaitasun txikiagoa duelako, beste edozein biztanleria-inkestak bezala, gizarte-egoera zaurgarrienean dauden biztanleei buruzko informazioa biltzeko.

Izan ere, eta kontraturik gabeko biztanleriaren proportzioarekin koherente izanik, Gizarte Segurantzaren alta emanda daudela adierazten duten pertsonen ehunekoa ia % 100ekoa da biztanleria autoktonoaren artean; aldiz, jatorri migratzaileko pertsonen artean, % 4,2 ez dago Gizarte Segurantzaren alta emanda, neurri handiagoan emakumeen kasuan, ia % 6.


5. grafikoa. Gizarte Segurantzaren alta emandako kontratua duten biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Hurrengo grafikoan hauteman daitekeenez, lanaldi partzialeko kontratua duten biztanle autoktonoen ehunekoa % 13,6 da, eta biztanleria migratzailearen kasuan, berriz, % 22,8. Partzialtasun-egoera horrek eragin handiagoa du emakumeengan edozein jatorritako gizonengan baino, % 21ekoa da emakume autoktonoen kasuan, eta % 31,3koa emakume migratzaileen kasuan.

6. grafikoa. Lanaldi partzialeko kontratua duen biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak eginia 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Era berean, astean lan egindako ordu kopuruari dagokionez, batez besteko ordu-kopurua txikiagoa da biztanleria migratzailearen kasuan, lanaldi partzialeko kontratua duen biztanleriaren proportzio handiagoarekin bat etorritz. Horrela, biztanleria autoktonoaren asteko batez besteko orduak 35,3 dira, eta biztanleria migratzailean, berriz, batez besteko hori 33,9 ordukoa da, eta datuen aldakortasuna handiagoa da. Hala, biztanleria migratzailearen % 50ek gutxienez 40 ordu edo gehiago egiten ditu astean, eta ordu gutxien lan egiten duen biztanleria migratzailearen % 25ek, ez du astean 25 ordu baino gehiago egiten. Banaketa hori homogeneoagoa da biztanleria autoktonoaren kasuan: biztanleriaren % 75ek astean 30 lanordu egiten ditu gutxienez, eta astean 40 ordu behintzaz lau pertsonatik batek.

Sexuen arabera, argi dago asteko batez besteko ordu kopurua handiagoa dela gizonen artean emakumeen artean baino, eta ez da alderik ikusten gizonen artean jaioterriaren arabera (37,7 ordu). Emakumeen kasuan, ikusten da jatorri migratzaileko emakumeek astean batez beste ordu gutxiago egiten dituztela (30,7 ordu) autoktonoek baino (32,9 ordu), eta migratzaileen % 25ek gutxienez 20 ordu egiten ditu, aldiz, astean ordu gutxien lan egiten duten emakume autoktonoen % 25ek 28 ordu egiten ditu.


1. taula. Astean lan egindako ordu kopuruaren estatistika deskribatzaileak, jaioterria eta sexuaren arabera

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	Autoktonoa	Migratzaile	Autoktonoa	Migratzaile	Autoktonoa	Migratzaile
Batezbestekoa	35,3	33,9	37,7	37,7	32,9	30,7
Desbideratze estandar	9,7	13,4	8,6	10,1	10,1	14,8
Mediana	39	40	40	40	35	33
Pertzentil 25	30	24	35	35	28	20
Pertzentil 75	40	40	40	40	40	40

Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta.

Biztanle gehienek, autoktonoek zein migratzaileek, lanarekin gogobetetze-maila nahikoa dute, lanarekin nahiko pozik daudela adieraziz. Ez dira ezberdintasun adierazgarriak⁵ ikusten gai honetan biztanleriaren jaioterriaren arabera, ez oro har, ezta sexuaren arabera bereiztean ere. Hala, biztanleriaren % 25-28 inguru oso gustura dago lanarekin, % 50 baino gehiago nahiko pozik dago, % 12 eta % 15 artean gogobetzea gutxi da, eta % 2-4 baino ez dago batere gustura.

7. grafikoa. Biztanleriaren ehunekoak lanarekiko gogobetetze-maila, jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

⁵ Biztanle autoktonoen eta migratzaileen arteko desberdintasunen adierazgarritasuna kalkulatu da, khi-karratu proben bidez. Irudikapen grafikoa koloretan agertzen dira alde esanguratsua dituzten ehunekoak, eta grisetan (argia biztanleria autoktonoarentzat eta iluna biztanleria migratzailearentzat) alde esanguratsurik ez duten proportzioak.

3.2. Lan-giroaren baldintza fisikoak

Lehenik, lan-inguruneko zikinkerari, hezetasunari edo aire-lasterreei buruzko baldintzei dagokienez, ez dago ezberdintasun esanguratsurik biztanle migratzailen eta autoktonoen artean, emakumeen kasuan izan ezik, azken elementuari dagokionez, aire-laster horiek ohikoagoak dira emakume autoktonoen artean (% 31) emakume migratzaileen artean baino (% 22,8). Nahiz eta ezin dugun zikinkerari buruzko desberdintasun adierazgarririk aipatu, ikusten da biztanleria migratzaileak, bereziki gizonen kasuan, maizago duela zikinkeraren arriskua. Hezetasunari dagokionez, ia ez dago alderik lanean hezetasun-baldintzak dituzten biztanleen proportzioan.


8. grafikoa. Zikinkeria eta hezetasun baldintzetan eta aire-lasterrekin lan egiten duten biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrিতා

Lan-inguruneko beste baldintza fisiko batzuen kasuan, hala nola osasun-egoera, kanpoaldera begiratzea edo argiztapena, ez dirudi desberdintasun nabarmenik dagoenik biztanleria autoktonoa eta migratzailearen artean. Nolanahi ere, osasun-instalazioen egoerari dagokionez, egoera okerra hautematen duen biztanleria migratzailearen proportzioa handiagoa da % 10 inguru; kanpoaldera begira ez egotearen kasuan, berriz, autoktonoak dira egoera hori gehien pairatzen dutenak. Argiztapenari dagokionez, gizon migratzaileek proportzio handiagoan adierazten dute argiztapenaren urritasuna (% 13,4); aitzitik, emakumeen kasuan, autoktonoak dira argiztapen urritasun handiena erakusten dutenak (% 9,2 eta % 5,9, hurrenez hurren).

9. grafikoa. Osasun-egoera okerrean, kanpora begira egon gabe eta argiztapen urriarekin lan egiten duten biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


3.3. Arrisku ergonomikoekiko esposizioa

Oro har, biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren artean arrisku ergonomikoekiko esposizioaren alderaketak erakusten du lehena dela esposizio handiena duena, batez ere karga, jarrera edo joan-etorri esfortzuekin lotuta daudenetan, aldiz, ikusmen-beharrei dagokienez, esposizio handiena duena populazio autoktonoa da.

Lehenik eta behin, biztanleria migratzailearen % 70 inguruk eta biztanleria autoktonoaren % 50ek baino gutxiagok denbora luzez zutik egon behar dute. Arrisku horri lotutako desberdintasuna emakumeen kasuan zertxobait handiagoa da, eta aldea ehuneko 22,7 puntukoa da. Era berean, jarrera astunetan edo neketsuetan egoteari dagokionez, desberdintasun esanguratsuak daude, ia ehuneko 7 puntukoa sexuen arteko aldeak kontuan hartu gabe, eta 13 puntutik gorakoa gizonen kasuan. Emakumeen artean ia ez dago desberdintasunik arrisku horretan.

Hirugarrenik, oinezko joan-etorri luzeak edo ohikoak egiteari dagokionez, aldeak hautematen dira emakumeen esposizio desberdinaren ondorioz, emakume migratzaileen % 37,3k egin behar dituzte horrelako joan-etorriak, berriz, emakume autoktonoen kasuan, proportzio hori % 21,9koa da. Gizonen kasuan ez dirudi desberdintasun esanguratsurik dagoenik, arrisku ergonomiko hori edozein jaoterritako gizonen % 27ri eragiten baitie.

10. grafikoa. Arrisku ergonomikoen
 (zutik egotea, jarrera neketsua eta oinezko joan-etorriak)
 eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Karga astunei, esfortzu fisikoei eta bibrazioa edo astinduei dagokienez, biztanleria migratzailearen esposizioa handiagoa da autoktonoen aurrean. Horrela, biztanleria migratzaileak bere lanean karga astunak jasaten dituen bitartean kasuen % 29,3an, biztanle autoktonoen artean ehuneko hori % 20,2koa da. Izan ere, jatorri desberdinetako gizonen artean dago alderik handiena, 15,5 puntukoa, eta gizon migratzaileen artean % 38,1era iristen da.

Era berean, esfortzu fisikoak egiteari dagokionez, desberdintasun handiak daude jaioterriaren arabera, kasu honetan ere emakumeen kasuan (% 30,5), autoktonoekiko ehuneko 9 puntu baino gehiagoko aldea (% 21). Gizonen artean, desberdintasuna ehuneko 14 puntukoa da, eta % 41etik gorakoa jatorri atzerritarra duten gizonen artean. Azkenik, dardarei edo astinduei dagokienez, desberdintasunak ez dira esanguratsuak, nolahi ere, esposizio hori ez da oso ohikoa emakumeen artean (% 3 baino gutxiago), eta gizonen kasuan, % 13 eta % 14 artean.

11. grafikoa. Arrisku ergonomikoen
(zama astunak, esfortzu fisikoak, bibrazioak edo astinduak)
eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Jantzien aldaketari dagokionez, jatorri desberdineko emakumeen arteko aldea nabarmentzen da, ohikoagoa da emakume migratzaileen artean (% 55,9) emakume autoktonoen aldean (% 42,2). Gizonen kasuan ere migratzaileen artean ohikoagoa da, baina ezberdintasunak ez dira esanguratsuak. Bestalde, mugimenduak edo gestuen errepikatzeari dagokionez, biztanleria migratzaileak du arrisku handiena, bereziki gizonen artean, ehuneko 10 puntuko aldearekin. Pertsonak altxatzearekin, mugitzearekin edo lekualdatzearekin lotutako arriskuaren kasuan, zaintzarekin oso lotuta dauden jarduerak izanik, biztanle autoktonoen eta migratzaileen arteko ezberdintasunak esanguratsuak dira, izan ere, emakume migratzaileen artean arrisku hori % 15,2koa da, eta emakume autoktonoen artean, berriz, % 8,1koa.

12. grafikoa. Arrisku ergonomikoen


(jantziak aldatzea, mugimenduen errepikapena, pertsonak mugitzea) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Hala ere, ikusmen ahaleaginekin edo zarataren eraginpean egotearekin zerikusia duten arrisku ergonomikoei dagokienez, espezioia askoz ere nabarmenagoa da biztanleria autoktonoaren kasuan migratzailearekiko, ehuneko 30 puntutik gorako aldea dago ordenagailuaren pantailari etengabe begiratzeaz ari garenean, eta 20 puntutik gorakoa objektuak, inprimakiak edo idatziak aztertzeke ikusmena behartzean. Azkenik, hitz egitea eragozten duen zarata-mailari dagokionez, ez dago ia ezberdintasunik jatorri desberdineko pertsonen artean, ez gizonen artean, ez emakumeen artean.

13. grafikoa. Arrisku ergonomikoen (pantaila begiratu, ikusmena behartu, zarata) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


3.4. Arrisku higienikoekiko esposizioa

Oro har, badirudi biztanleria migratzaileak biztanleria autoktonoak baino arrisku higieniko gehiago dituela, baina ezberdintasunak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Lehenik eta behin, keak arnasteari dagokionez, biztanleria migratzaileak esposizio handiagoa du, batez ere gizonen kasuan, % 19,6 biztanleria migratzailearen artean eta % 15,9 biztanleria autoktonoaren artean. Hautsa arnasteari dagokionez, aldea handiagoa da, ehuneko 5 eta 7 puntu artekoa, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

Bigarrenik, produktu toxikoak arnasteari edo manipulatzeari dagokionez, berriz ere biztanleria migratua da arrisku handiena duena, eta bereziki garrantzitsuak dira emakumeen arteko ezberdintasunak. Hala, emakume migratzaileen % 19,5ek produktu toxikoak arnasten dituzte, eta autoktonoen % 11,3k. Gainera, migratzaileen % 21,2k produktu toxikoak manipulatzeko erabiltzen dituzte, eta proportzio hori emakume autoktonoen artean % 13,4an geratzen da. Gizonen kasuan dauden ezberdintasunek ere eredu bera erakusten dute, baina ez dira esanguratsuak.

14. grafikoa. Arrisku higienikoen


(keak, hautsa, produktu toxikoak arnatea, produktu toxikoak manipulatzeko) eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Bestalde, erradiazio arriskuari dagokionez, prebalentziak oso txikiak dira, % 5etik beherakoak kasu guztietan, nahiz eta biztanle autoktonoen artean zertxobait handiagoak izan. Infekzio arriskuari dagokionez, biztanleria autoktonoa ere du arrisku handiena, biztanleria migratzailearekiko ehuneko 3 eta 5 puntu arteko aldea. Azkenik, gorputzeko jariakinen edo hondakinen manipulazioari dagokionez, ezberdintasun nabarmenak daude, emakumeen artean ehuneko ia 10 puntura iristen dira, arrisku horren eraginpean dauden emakume migratzaileen % 25,4rekin.

15. grafikoa. Arrisku higienikoen
(erradiazioak, infekzioa, gorputz jariakinak edo hondakinak manipulatzeari eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera)



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


3.5. Segurtasun arriskuekiko esposizioa

Biztanleriaren segurtasun arriskuekiko esposizioa jaioterriaren arabera alderatzean, biztanleria migratzailearen kasuan adierazle batzuetan arrisku handiagoa ikusten da, beste batzuetan, aldiz, biztanleria autoktonoaren artean arrisku handiagoa antzematen da, nahiz eta azken kasu horretan ezberdintasunak txikiak eta estatistikoki esanguratsuak ez diren.

Hala, ez dirudi ezberdintasun handirik dagoenik lehegailuak manipulatzeko, materialek harrapatzeko edo deskarga elektrikoa jasateko arriskuarekin. Altueratik erortzearen kasuan, aldeak handiagoak dira eta gizonen kasuan

esanguratsuak, gizon migratzaileen % 23,7k jasaten baitute segurtasun-arrisku mota hori, gizon autoktonoen % 18,7ren aldean.

16. grafikoa. Segurtasun arriskuen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoak (lehergaien manipulatzeari, materialek harrapatzeari, altueratik erortzeari, deskarga elektrikoari) jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Bestalde, erreduren, makinek eta erremintek eragindako zaurien arriskuei dagokienez, biztanleria migratzaileak arrisku handiagoa du. Hala, erreduren kasuan, biztanleria migratzailearen % 25,6k adierazi du arrisku hori pairatzen duela, eta biztanleria autoktonoaren artean proportzioa % 15,3koa da. Desberdintasun hori gizonetan zein emakumeetan mantentzen da, arriskua handiagoa izanik lehenengoaren artean (% 32 gizon migratzaileen artean, eta % 21,6 autoktonoen artean), nahiz eta arriskuaren desberdintasuna handiagoa den bigarrenaren artean, ehuneko 11 puntukoa.

Erremintek eragindako zaurien kasuan ere alde handiak daude gizonen artean. Hala, gizon migratzaileen % 50,5ek pairatzen du arrisku hori, berriz, gizon autoktonoen kasuan % 35,9k. Emakumeen artean desberdintasun erdua mantentzen da, baina ezberdintasuna ez da esanguratsua. Makinek eragindako zaurien arriskuari dagokionez, ezberdintasunak txikiagoak dira, eta

jatorri desberdineko emakumeen arriskua ia berdina da, baina nabarmentzekoa da gizonen kasuan ehuneko 5 puntuko aldearekin. Azkenik, zirkulazio-istripuei dagokienez, biztanle autoktonoen artean arriskua handiagoa da, baina ezberdintasunak ez dira esanguratsuak.

17. grafikoa. Segurtasun-arriskuen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoak (erredurak, makinek eragindako zauriak, erremintek eragindako zauriak, zirkulazio-istripua), jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

3.6. Arrisku psikosozialekiko esposizioa


Jarraian, biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren artean arrisku psikosozialetan dauden ezberdintasunei buruzko emaitzak aurkezten dira, arrisku mota horien dimentsio bakoitzean, hau da, lan-edukiari, lan-karga eta -eritmoari, lan-denborari, kontrolari eta parte-hartzeari, erakunde-kulturari, harreman pertsonalei, garapen pertsonalari eta etxea-lanaren arteko elkarreraginari lotutakoak. Azkenik, loan eragina duten kezkei buruzko datuak azaltzen dira.

Lan-edukia

Dimentsio horren barruan, informazioa gordetzearekin edo zeregin konplexuak egitearekin lotutako arriskuak daude, biztanleria autoktonoak biztanleria migratzaileak baino arrisku handiagoa dauka. Horrela, biztanleria autoktonoaren % 55,5entzat, bere lanak informazio asko gordetzera behartzen du, eta proportzio hori % 23,2koa baino ez da migratzaileen artean. Eredu bera ikus daiteke gizonen eta emakumeen artean. Era berean, zeregin konplexuetan dagoen aldea antzekoa da, biztanle autoktonoen artean esposizioa handiagoa izanik eta bereziki gizonen artean, biztanleria migratzailearekiko aldea ehuneko 27 puntu baino gorakoa da. Kontzentrazioari edo zaintzari dagokionez ere (etengabeko arreta), biztanleria migratzailearen esposizioa txikiagoa da, baina adierazle horretan ezberdintasunak ez dira esanguratsuak.

Aitzitik, zeregin monotonoak egiteari dagokionez, biztanleria migratzaileak du arrisku horren esposizio handiena (% 71,2), biztanle autoktonoen artean, berriz, % 45,9k. Gizonen eta emakumeen kasuan ehuneko 25 puntuko alde hori mantendu egiten da.

18. grafikoa. Lan-edukiari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterra eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Lan-karga eta -erritmoa

Dimentsio honek lan-erritmoarekiko gogobetetzea eta lana egiteko denbora nahikoa izatea biltzen ditu. Biztanleria autoktonoak biztanleria migratzaileak baino gogobetetze gutxiago erakusten du lan-erritmoarekiko, ezberdintasunak esanguratsuak ez diren arren. Hala, biztanleria autoktonoaren % 19,5 ez du lan-erritmoarekin gogobetetzetik aurketzen, bitartean jatorri migratzaileko biztanleriaren artean ehuneko % 16,7koa da, ezberdintasun horiek zertxobait handiagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino.

Era berean, denbora nahikoa edukitzeari dagokionez, biztanleria autoktonoa da arrisku horren esposizio handiena duena, lau pertsonatik batek lana behar bezala egiteko denbora nahikorik ez duela adierazten du, biztanleria migratzailearen kasuan, berriz, % 16,3ak. Badirudi ezberdintasun hori handiagoa dela emakumeen kasuan, ehuneko 13 puntuko aldearekin.

19. grafikoa. Lan-kargari eta -erritmoari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


Lan-denbora

Arrisku psikosozialak balioztatzeko beste dimentsio bat lan-denbora da. Aztertzen dituen gaien artean, biztanleriaren artean jaioterriaren arabera desberdintasunak daudela ikusten da; beste batzuetan, berriz, ez dirudi ezberdintasun esanguratsurik dagoenik.

Lehenik eta behin, txandakako eta gaueko lanari dagokienez, ez dago ia alderik hori egiten duen biztanleria bakoitzaren ehunekoan. Txandakako lanaren kasuan, ordea, ehuneko 5 puntuko aldea ikusten da, eta, horien arabera, emakume migratzaileak autoktonoak baino gehiago aurkitzen dira horrelako lanetan.

Bestalde, astean bi atsedeen-egun izateari dagokionez, biztanleria migratzailearen ehuneko handiago batek, % 32,6k, ez ditu bi egun horiek eta autoktonoek, berriz, % 16,4k. Desberdintasun hori handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, emakume migratzaileen eta autoktonoen arteko aldea ehuneko 18,2 puntukoa da, eta gizonena, aldiz, 13,3 puntukoa.


20. grafikoa. Lan-denborari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa (1), jaioterra eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Igande eta larunbatetako lanari dagokionez, ezberdintasun esanguratsuak daude, pertsona migratzaileak dira egun horietan lan gehien egin behar dutenak. Horrela, biztanleria migratzailearen % 33k eta biztanleria autoktonoaren % 24,6k igandeetan lan egiten du, aldiz, % 50,7k eta % 37,1ek larunbatetan, hurrenez hurren. Ezberdintasunak emakumeen artean handiagoak dira gizonen artean baino, ehuneko 16-18 puntu bitartean lehenengoetan. Izan ere, gizonen artean ez da alderik hautematen igandeko lanean. Azkenik, egunean 10 ordu baino gehiago lan egiteari dagokionez, egoera horretan autoktonoen proportzio handiagoa aurkitzen da, batez ere gizonak, baina ez dago ezberdintasun adierazgaririk jaioterriaren arabera.

21. grafikoa. Lan-denborari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa (2), jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Kontrola eta parte-hartzea

Laneko kontrolari eta parte-hartzeari buruzko dimentsioari dagokionez, biztanleria migratzaileak arrisku psikosozial handiagoa duela ikus daiteke, lan-metodoa, zereginen hurrenkera, lan-erritmoa edo etenaldi edo deskantsuak aukeratu edo aldatu ezin dituzten pertsonen ehunekoa handiagoa baita. Berziki, biztanleria autoktonoaren eta migratzailearen arteko ezberdintasunak handiagoak dira lan-metodoa aukeratzeari dagokionez, ehuneko 10 puntu eta zereginen hurrenkera aukeratzeari dagokionez, ehuneko 12 puntuko aldearekin. Era berean, esposizio handiago hori nabarmenagoa da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino, adierazle bakoitzean jatorri desberdinetako biztanleen artean ehuneko 14 puntuko eta 20 puntuko distantziarekin, hurrenez hurren.

Lan-erritmoari buruzko aukeraketaren kasuan ere, badirudi biztanleria migratzaileak duela horri buruz erabakitze gaitasun txikiena, baina ezberdintasunak txikiagoak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak. Era berean, badirudi geldialdi edo deskantsu uneen aukeratzeari dagokionez, ehuneko 12 puntuko aldearekin, baina emakumeen artean alderantziz gertatzen da.

22. grafikoa. Kontrolari eta parte-hartzeari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Erakunde-kultura

Erakunde-kulturari lotutako arriskuak etengabeko prestakuntzako ikastaroak egiteari dagozkio, bai eta lana egiteko informazio argia eta nahikoa izateari, lankidetzan aritzeko aukerei edo zigorra jartzeko aukerei ere, lanean akatsen bat izanez gero (enplegua arriskuan jartzea edo galtzea dakarten zehapenak, edo soldata murriztea, adibidez).


Horrela, biztanleria migratzaileak neurri handiagoan adierazten du ez duela etengabeko prestakuntzako ikastarorik egin. Biztanleria migratzailearen % 88k baino gehiagok ez du ikastarorik egin azken 12 hilabeteetan, biztanle autoktonoen % 75,6ren aldean, emakumeen kasuan distantzia hori handiagoa da.

Bestalde, lana behar bezala egiteko informazio argi eta nahikorik ez izatearekin lotutako arriskua ohikoagoa da biztanle autoktonoen artean migratzaileen artean baino, izan ere, pertsona autoktonoak % 18,5 dira, eta migratzaileak, berriz, % 9,8. Ezberdintasuna gizonen eta emakumeen artean antzekoa da, zertxobait nabarmenagoa lehenengoan artean.

Informazioa edo laguntza trukatzearekin lotutako lankidetzarako aukerari dagokionez, ez da ezberdintasun adierazgarririk ikusten biztanleriaren

jaioterriaren arabera, aldiz, lanean akatsen bat eginez gero zigorra jartzeko aukerari dagokionez, biztanleria autoktonoak arrisku hori pairatzeko arrisku handiagoa du, kasuen % 22,8an, biztanleria migratzailearen % 16,7ren aldean, eta neurri handiagoan gizonen kasuan.

23. grafikoa. Erakunde-kulturarekin lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa (1), jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


Erakunde-kulturako beste gai batzuei dagokienez, hala nola ezusteko arazoak konpontzeko gaitasun autonomoa, kalitate-estandar zehatzei erantzuteko beharra edo norberaren lanaren kalitatea baloratzeko aukera, biztanleria migratzailea egoera okerragoan dago. Hala, lehen adierazlean, jatorri migratzaileko pertsonen % 43,2k diote ez dituztela ezusteko arazoak beren kabuz konpontzen, biztanle autoktonoen artean, berriz, % 27,8k, gizonen artean ezberdintasuna zertxobait handiagoa da emakumeen artean baino, baina horiek ere autonomia handiagoa dute zentzu horretan.

Bestetik, kalitate-estandar zehatzei erantzun behar izateari dagokionez, antzematen da biztanleria migratzailearen % 60k ez duela horrelakorik egiten, biztanleria autoktonoaren % 38,5ren aurrean. Ezberdintasunak

gizonetan eta emakumeetan oso antzekoak dira, ehuneko 20 puntu baino gehiagokoak, nahiz eta emakumeak izan proportzio handiengan, hirutik bik, esplizituki adierazten dutenak beren lanak ez dakarrela kalitate-estandar zehatzei erantzutea, eta hori horien faltatzat eta horri buruzko ziurgabetasuntzat uler daiteke.

Azkenik, biztanleria migratzailearen % 60,5ek eta autoktonoaren % 41,2k adierazi du ezin duela bere kabuz bere lanaren kalitatea baloratu. Ezberdintasun hori zertxobait handiagoa da gizonen artean, ehuneko 21 puntukoa, emakumei dagokionez 17 puntukoa da.

24. grafikoa. Erakunde-kulturarekin lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa (2), jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


Harreman pertsonalak

Laneko harreman pertsonalei buruzko dimentsioan, bi adierazle hartzen dira erreferentziatzat, batetik, indarkeria, jazarpen edo diskriminazio egoerei buruzkoa, eta, bestetik, jendearentzako arreta eta horren ondorioz sortzen diren tentsio egoerei buruzkoa. Lehenik eta behin, emaitzek erakusten dute biztanleria migratzaileak autoktonoak baino proportzio txikiagoan adierazten

duela enpresan indarkeria, larderia, jazarpen edo diskriminazio larriko egoerak ezagutzen dituela, % 1,9 baino ez, autoktonoen % 5,3ren aldean, gizonen eta emakumeen artean ehuneko horiek antzekoak dira. Emaidza horiek espero zenaren aurkakoak dira, izan ere, gizarte-zaurgarritasuneko egoera maila sozioekonomiko behartsuenekin eta biztanleria migratzailearen arraza mendekotasuneko jarrerarekin lotuta dago. Horrek zerikusia izan dezake lan-ingurunean horrelako indarkeria edo diskriminazio egoerak gutxiegi aitortzearekin edo egoera horiek biztanleria horren artean gutxiago hautematearekin edo identifikatzearekin.

Bestalde, jendearekiko tentsio-egoerei dagokienez, pertsonekin (bezeroak, erabiltzaileak, pazienteak, etab.) arreta postuetan lan egiten duten pertsonen artean soilik biztanleria autoktonoa da horrelako egoerei gehien aurre egiten diena, % 24, biztanleria migratzailearen % 13,8aren aldean. Nolanahi ere, emakumeak dira arrisku psikosozial horren esposizio handiena dutenak.

25. grafikoa. Harreman pertsonalei lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa, jaioterriaren eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta


Garapen pertsonala

Arrisku psikosozialaren beste dimentsioetako bat garapen pertsonala da, eta horri buruz LBIk lanpostuko sustapenari buruzko bi adierazle eskaintzen ditu. Horrela, lehenik, biztanleria migratzailearen ehuneko handiagoak adierazten du ez duela inolako sustapen pertsonalik izan, % 83,5ek, biztanleria autoktonoaren % 67,2ren aldean. Jaioterriaren arabera aldea zertxobait handiagoa

da gizonen artean emakumeen artean baino, nahiz eta mailaz igotzeko aukerak ere ez dauden berdin banatuta sexuaren arabera; nolana ere, emakumeak izan dira enpresa barruan lanpostuz igotzeko aukera izan ez dutenak.

Sustapen aukera horiei dagokienez, gogobetetze-eza ere desberdina da; izan ere, mailaz igotzeko aukerekin gustura ez dauden pertsona migratzaileen proportzioa handiagoa da, % 53, eta pertsona autoktonoen artean, aldiz, % 43,5. Berriz ere, gogobetetze-eza apur bat handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, nahiz eta jaioterriaren arabera gizonen arteko aldea zertxobait handiagoa da emakumeen arteko aldearekiko.

26. grafikoa. Garapen pertsonalari lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Elkarreragina etxea-lana

Lana bateragarri egiteari buruzko alderdiak aztertzen dituen dimentsioan, LBIk bi adierazle jasotzen ditu, hau da, lanaldi partzian lan egiteko arrazoiak eta ordutegi bateragarritasuna familia- edo gizarte-betebeharrei erantzun ahal izateko. Lehen adierazlean, biztanleria migratzailearentzat aldagai horren barruan baliozko kasuen kopuru txikiak ez zuen azterketa egitea ahalbidetzen, eta, beraz, ez dira emaitzak txosten honetan azaltzen.

Lana eta familia eta gizarte bizitza bateragarri egiteari dagokionez, ez dirudi ezberdintasun esanguratsurik dagoenik jaioterriaren arabera, nahiz eta biztanleria autoktonoak proportzio handiagoan aipatzen dituzten kontziliatzeko zailtasunak. Hala, biztanleria autoktonoaren % 19,2k eta migratzaileeen % 16,4k adierazten dute ezin dituztela behar bezala bete familia- edo gizarte-betebeharrak, lan-ordutegia dela eta. Gizonen kasuan, ehuneko emakumeen artean baino handiagoa da, eta, gainera, jaioterriaren arabera ezberdintasuna ere handiagoa da, ehuneko 5 puntu baino gehiago, jatorri desberdineko emakumeen kasuan, berriz, ia ehunekoen berdintasuna dago.

27. grafikoa. Etxe-lanaren arteko elkarreraginaren (ordutegi bateragarritasuna) arrisku psikosozialen eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoak, jaioterria eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Loa

Azkenik, arrisku psikosozialen PRIMA-EF sailkapenaren barruan ez dagoen azken adierazle bat sartu da, baina 2020ko LBIak laneko kezkek loan zer eragin duten ezagutzeko txertatu du. Horrela, datuek adierazten dute biztanleria autoktonoari bere lanak loaren kalitatean eta iraupenean eragiten duten kezkak eragiten dizkiola hautematen dutela, guztizkoaren % 27,8ra iritsiz, biztanleria migratzailearen artean, berriz, ehuneko hori % 16,3koa da. Oso antzeko ezberdintasunak daude jatorri desberdineko gizon eta emakumeen artean.

28. grafikoa. Loan eragina duten kezkei lotutako arrisku psikosozialen eraginpean dauden biztanleriaren ehunekoa, jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

3.7. Prebentzio-jardueretan parte hartzea


Jarraian, biztanleria autoktonoak eta migratzaileak lan egiten duten enpresek laneko segurtasun eta osasunaren arloan egiten dituzten prebentzio-jardueretan dauden desberdintasunei buruzko emaitzak jasotzen dira. Horien artean daude osasun-azterketak, segurtasunari eta osasunari buruzko prestakuntza, babes-ekipamendutan edo instalazioetan eta antolaketan egindako hobekuntzak, arrisku fisiko zein psikosozialen ebaluaketak, edo enpresan prebentzio-plan bat egotea.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, biztanleria autoktonoaren ehuneko handiagoak laneko segurtasun eta osasun jarduerak egiten dituzten enpresetan lan egiten du. Zehazki, ezberdintasun esanguratsuak daude langileen osasun-azterketei dagokienez, pertsona autoktonoek lan egiten duten enpresen % 70ek baino gehiagok egiten dituzte azterketa horiek, eta biztanleria migratzaileak lan egiten duen enpresen % 50,7k baino ez. Ezberdintasun hori are handiagoa da emakumeen kasuan, ehuneko 25 puntuko aldearekin, nolana ere, emakume autoktonoen kasuan ere, horrelako osasun-azterketak ez dira hain ohikoak edozein jatorritako gizonen kasuan baino.

Bestalde, segurtasunari eta osasunari buruzko prestakuntzari dagokionez, biztanleria autoktonoa izan da jarduera horietan gehien parte hartu duena, % 55ek, biztanleria migratzailearen % 44,6ren aurrean. Bereziki garrantzitsua da emakumeen arteko aldea prestakuntzan, ehuneko 14 puntuko aldearekin.

Azkenik, babes-ekipamenduen, instalazioen eta antolaketaren hobekuntzei dagokienez, ez dago ezberdintasun estatistikoki adierazgarririk, nahiz eta ehunekoak handiagoak izan biztanleria autoktonoa lan egiten duen enpresetan.

29. grafikoa. Prebentzio-jardueretan parte hartzen duen biztanleriaren ehunekoa (1), jaioterra eta sexuaren arabera




Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

Halaber, arrisku fisikoen ebaluaketari dagokionez, desberdintasun nabarmena antzematen da, izan ere, kasuen % 42,2an biztanleria autoktonoaren artean gertatzen den jardura mota da, biztanleria migratzailearen % 26ren aurrean. Eredu bera gertatzen da gizonetan zein emakumeetan. Era berean, arrisku psikosozialei dagokienez, enpresetan horien ebaluaketa handiagoa da biztanleria autoktonoaren artean, % 34,1, % 24,1en aldean, gizonen kasuan ezberdintasuna ez da esanguratsua, eta handiagoa emakumeen kasuan (ehuneko 12 puntu).

Bestalde, biztanle autoktonoek lan egiten duten enpresen proportzio handiagoak prebentzio-plan bat egin du, % 54,3k, biztanleria migratzailearen kasuan, berriz, % 35,8k, desberdintasun handiagoarekin emakumeen kasua hautematen badugu, ehuneko 19 puntuko aldearekin. Azkenik, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako beste jardura batzuei dagokienez, biztanleria autoktonoaren aldeko eredu bera ikusten da, eta desorekatuagoa emakumeen kasuan.

30. grafikoa. Prebentzio-jardueretan parte hartzen duen biztanleriaren ehunekoa (2),
jaioterria eta sexuaren arabera



Iturria: norberak egina 2020ko Euskadiko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) oinarrituta

4. Lan istripua eta gaixotasun profesionala: biztanleria nazionalaren eta atzerritarraren arteko ezberdintasunak

Kapitulu honetan, lan istripuetan eta gaixotasun profesioaletan biztanleria nazionalaren eta atzerritarren⁶ artean dauden ezberdintasunak aztertzen dira. Zehazki, zifra absolutuak, istripu eta gaixotasun profesionalen tasak analizatuko dira, bai eta 2016-2022 aldian izandako bilakaera ere.

4.1. Biztanleria nazionalaren eta atzerritarraren arteko ezberdintasunak lan-istripuetan

Jarraian, lan istripuen zifrak deskribatzen dira eta azken bi urteeko intzidentzia datu eskuragarriak baitaude (2021-22)⁷, baita 2016 eta 2022 arteko aldirako ere. Egungo egoera eta bilakaera deskribatzeko, biztanleria langilearen nazionalitatearen arabera (nazionala edo atzerritarra) dauden aldeak hartuko dira kontuan, baita sexuaren eta adin-taldearen arabera ere. Lan-istripu guztien emaitzak aurkezten dira, bai eta istripu moten arabekoak ere, hau da, lanean zehar gertatutakoak, «lanaldian» izenekoak, eta ohiko bizilekutik

⁶ Kapitulu honetan biztanleria bereizteko erabili den aldagaia nazionalitateko herrialdea izan da, nazionalitate espainiarra duten pertsonak, nazionalak izendatuak eta nazionalitate atzerritarra duten pertsonak, atzerritarrak izendatuak.

⁷ 2021 eta 2022 urteetako datuak multzokatu dira, emaitzak sendagoak izan daitezzen.

lantokirako joan-etorrietan gertatzen direnak, eta alderantziz, «in itinere» izenekoak. Gainera, istripuak larritasun-mailaren arabera aztertuko dira ere (arina, larria, hilgarria).

Istripu tasak eta zifrak 2021-22an

Istripu tasak ezberdintasunak erakutsi zituen atzerritarren eta nazionalen artean, hala ere, alde horiek aldatu egin ziren sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen artean kontrako patroia erakutsiz. Gizonen kasuan, istripu kopurua mila langileko % 37 handiagoa da atzerritarretan nazionaletan baino, emakumeen kasuan, aldiz, atzerritarren tasa espainiarrena baino % 9 txikiagoa da. Atzerritarren eta nazionalen arteko adinen arabera aldeen eragina ezabatzean, istripu tasaren ezberdintasunak antzekoak izan ziren; hala ere, emakumeen kasuan zertxobait igo ziren, atzerritarren tasa espainiarrena baino % 17 txikiagoa izan zen.

Bestalde, emakumeen kasuan, nazionalitatearen arabera ezberdintasunak adinarekin nabarmen aldatzen dira. Alderik handienak adin nagusiko taldean daude (50-64 urte) non nazionalen istripu tasa atzerritarrena baino 10 puntu handiagoa da. Emakume gazteen artean eredu aldatu egiten da eta atzerritarren tasa nazionalena baino handiagoa da. Gizonen kasuan, nazionalen eta atzerritarren arteko aldeak antzekoak izan ziren adin-talde guztietan, baina zertxobait txikiagoak izan ziren erdiko adin-taldean (30-49 urte).

Istripu motari dagokionez, gizonen kasuan, atzerritarren tasarik handiena lanaldiko istripuetan gertatu zen, berriz, *in itinere* istripuetan ia ez zen ezberdintasunik egon atzerritarren eta nazionalen artean. Emakumeen kasuan, eredu kontrakoa da, eta atzerritarren eta nazionalen arteko aldeak *in itinere* istripuetan gertatzen dira. Larritasunari dagokionez, bi sexuetan jaioterriaren arabera ezberdintasunak handiagoak dira istripu larrietan. Horrela, gizonen kasuan atzerritarren tasak espainiarrena bikoizten du, eta, emakumeen kasuan, espainiarren tasa atzerriko nazionalitatea dutenen tasaren bikoitza baino zertxobait txikiagoa da.


2. taula. Lan (gordina, estandarizatu eta adin-taldeka) istripuen tasa (totalak eta mota eta larritasunaren arabera) nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. Guztira eta ratioa (atzerritarra/nazionala). 2021-2022

		Gizonak			Emakumeak		
		Nazionala	Atzerritarra	Ratioa	Nazionala	Atzerritarra	Ratioa
Guztira	Tasa gordina	47,20	64,60	1,37	21,20	19,20	0,91
	Tasa estand.	47,40	64,00	1,35	21,20	17,60	0,83
	16-29	48,80	68,40	1,40	20,90	24,80	1,19
	30-49	51,70	64,00	1,24	20,20	19,40	0,96
	50-64	40,80	62,50	1,53	22,60	12,80	0,57
Lanaldian	Tasa gordina	43,90	61,10	1,39	16,70	15,50	0,93
	Tasa estand.	44,10	60,80	1,38	16,60	14,20	0,86
	16-29	44,00	63,90	1,45	15,60	19,50	1,25
	30-49	48,20	60,50	1,26	16,00	15,90	0,99
	50-64	38,50	60,00	1,56	17,80	9,92	0,56
In itinere	Tasa gordina	3,25	3,54	1,09	4,56	3,69	0,81
	Tasa estand.	3,27	3,26	1,00	4,56	3,47	0,76
	16-29	4,73	4,44	0,94	5,36	5,35	1,00
	30-49	3,58	3,49	0,97	4,18	3,43	0,82
	50-64	2,35	2,54	1,08	4,80	2,88	0,60
Arina	Tasa gordina	46,80	63,90	1,37	21,10	19,20	0,91
	Tasa estand.	47,00	63,20	1,34	21,10	17,60	0,83
	16-29	48,60	68,00	1,40	20,90	24,80	1,19
	30-49	51,50	63,30	1,23	20,10	19,30	0,96
	50-64	40,30	61,40	1,52	22,50	12,80	0,57
Larria/ hilgarria	Tasa gordina	0,36	0,71	1,97	0,07	0,04	0,57
	Tasa estand.	0,36	0,81	2,25	0,07	0,02	0,29
	16-29	0,19	0,41	2,16	0,05	0,00	0,00
	30-49	0,30	0,67	2,23	0,06	0,04	0,67
	50-64	0,51	1,15	2,25	0,09	0,00	0,00

Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA(n) (Eustat) oinarrituta.

Aurreko taulan ikusitako tasek jatorri taldeen artean oso ezberdinak diren istripu kopuru absolutuei egiten diete erreferentzia, eta hori, hein handi batean, biztanleria landun atzerritarren bolumena nazionalarena baino txikiagoa izatearen ondorio da. Horrela, pertsona nazionalen lan-istripuak 2021ean eta 2022an 59.684 igo ziren, biztanleria atzerritarren artean, berriz, 6.954. Adin-taldeen arabera, nazionalen zein atzerritarren istripu gehienak 30 eta 49 urte bitartekoen artean gertatzen dira. Halaber, 50 eta 64 urte bitarteko pertsonen istripuen kopurua ere garrantzitsua da, eta 16 eta 29 urte bitarteko gazteenak askoz gutxiago dira. Emakume nazionalen kasuan, istripu kopurua adin ertaineko emakumeetan eta zaharretan antzekoa da.

31. grafikoa. Lan-istripuen kopurua, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022




Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) oinarrituta

Istripu tasa gordina aztertzean, nazionalitatearen araberako ezberdintasunak nabariak dira gizonen artean, eta intzidentzia handiagoa dute atzerriko nazionalitatea dutenen artean nazionalen artean baino (milako 64,6, milako 47,2, hurrenez hurren), emakumeen artean, berriz, aldeak askoz txikiagoak dira eta alderantzizko ereduari jarraitzen diote (milako 19,2, milako 21,2). Talde bakoitzaren adin-egituraren adinaren araberako aldeak ezabatzen direnean, jatorriaren araberako aldeak eta gizonen eta emakumeen arteko alderantzizko patroia mantentzen dira. Hala, gizon nazionalen tasa estandarizatua milako 47,4koa izan zen 2021-22an, eta gizon atzerritarrena, berriz, milako 64,0koa. Emakumeen kasuan, ordea, istripu tasa handiagoa da espainiar nazionalitateko emakumeetan, milako 21,2ko tasa estandarizatuarekin, emakume atzerritarren milako 17,6ren aldean.

Adin-taldeen arabera tasei dagokienez (32. grafikoa), antzeko ezberdintasunak ikusten dira nazionalitatearen arabera, gizon gazteenen artean, 16-29 urte, eta zaharreneen artean, 50-64 urte, zertxobait nabarmenagoak izanik. Emakumeetan, adin-talde handienaren kasuan, nazionalen tasa atzerritarren tasa baino handiagoa da, ia 10 puntuko distantziarekin, eta, hala ere, emakume gazteenen taldean ezberdintasuna alderantzizkoa da (atzerritarren tasa handiagoa izanik), 30-40 urtekoen taldean, berriz, ez da ia alderik ikusten.


32. grafikoa. Lan-istripuen tasa, nazionalitate, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022



Iturria: norberak egin a Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJAan (Eustat) oinarrituta


Istripu motari erreparatzen badiogu, lanaldiko lan-istripuei dagokienez (33. grafikoa), nazionalitatearen arteko ezberdintasunak eta sexuen arabera alderantzizko patroia mantendu egiten direla hauteman daiteke. Izan ere, istripu mota horiek guztizkoaren gehiengoa dira. Hala ere, joan-etorrietan gertatzen diren istripuen tasetan (34ez da hain alde argirik ikusten nazionalitateari dagokionez, ezta gizonen eta emakumeen artean ere. Izan ere, gizonen tasetan ia berdintasuna dago, batez ere tarteko adinekoetan, eta emakumeen kasuan, gazteenen kasuan tasa berdina da; tarteko adinekoetan, berriz, aldea puntu bat baino txikiagoa da, eta adin handiagokoetan dago alderik handiena (milako 2,8 nazionaletan eta milako 4,9 atzerritarretan).

33. grafikoa. Lanaldiko lan-istripuen tasa, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA(n) (Eustat) oinarrituta

34. grafikoa. In itinere lan-istripuen tasa, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA(n) (Eustat) oinarrituta

Istripuaren larritasunari dagokionez, istripu gehienak arinak direla hautematen da, bai nazionalenak, bai atzerritarrenak, adin-talde eta sexu bakoitzeko istripu guztien % 98-99 inguru.

3. taula. Lan-istripuen kopurua, larritasuna, nazionalitate, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022

		Nazionala			Atzerritarra		
		Arina	Larria	Hilgarria	Arina	Larria	Hilgarria
Gizonak	16-29	5.372	20	1	1.147	7	0
	30-49	22.636	114	16	3.535	31	6
	50-64	13.847	145	32	798	12	3
Emakumeak	16-29	2.005	5	0	348	0	0
	30-49	8.238	21	4	896	2	0
	50-64	7.200	26	2	169	0	0

Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) oinarrituta.

Larritasunaren araberako tasei erreparatzen badiegu, ikusten dugu espainiar nazionalitateko gizonak milako 47ko istripu arinen tasa estandarizatua dutela, eta atzerriko gizonak, berriz, milako 63,2koa. Istripu larrien tasari dagokionez, nabarmentzekoa da gizon atzerritarrek intzidentzia handiagoa dutela nazionalak baino (milako 0,67 eta milako 0,31, hurrenez hurren). Istripu hilgarriei dagokienez ere, atzerriko gizonen artean intzidentzia handiagoa da, milako 0,14rekin, eta milako 0,05ekin nazionalen artean. Emakumeetan kontrako eredua aurkitzen dugu, istripu arinen tasa handiagoa baita nazionalen artean (milako 21,10) atzerritarren artean baino (milako 17,60), eta nazionalen artean istripu larrien tasa ere handiagoa da.

Adin-taldearen arteko aldeak aztertuz gero, ikus daiteke istripu larrien tasa altuagoa dela gizon zaharrenen artean, bai espainiarren artean (milako 0,42), bai atzerritarren artean (milako 0,92), bai emakume nazionalen artean (milako 0,08). Era berean, istripu hilgarrien tasa oso txikia da, nahiz eta 50-64 urte baino gehiagoko gizon nazionalen artean handiagoa izan (milako 0,09 mila), baina bereziki atzerriko gizon zaharrenen artean, milako 0,23ko tasarekin, gainerakoak baino askoz handiagoa.

4. taula. Lan-istripuen tasa, larritasuna, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022

		Nazionala			Atzerritarra		
		Arina	Larria	Hilgarria	Arina	Larria	Hilgarria
Gizonak	Totala estand.	47,00	0,31	0,05	63,20	0,67	0,14
	16-29	48,60	0,18	0,01	68,00	0,41	0,00
	30-49	51,50	0,26	0,04	63,30	0,56	0,11
	50-64	40,30	0,42	0,09	61,40	0,92	0,23
Emakumeak	Totala estand.	21,10	0,06	0,01	17,60	0,02	0,00
	16-29	20,90	0,05	0,00	24,80	0,00	0,00
	30-49	20,10	0,05	0,01	19,30	0,04	0,00
	50-64	22,50	0,08	0,01	12,80	0,00	0,00

Iturria: norberak egin Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA_n (Eustat) oinarrituta.


Istripu zifra eta tasen bilakaera (2016-2022)

Espainiako nazionalitatea eta atzerriko nazionalitatea duten biztanleriak pairatutako lan istripuen kopuru absolutuaren denbora-bilakaerak erakusten duenez, 2016 eta 2019 artean gora egin du, eta 2020an COVID-19aren pandemiak eragindako krisiarekin nabarmen murriztu zen, eta gero, gora egin du berriro. Hala ere, joera orokorra antzekoa bada ere, ezberdintasun handiak ikus daitezke langilearen nazionalitatearen arabera lan-istripuen kopuruaren hazkunderaren intentsitatean. Hala, biztanleria nazionalaren istripuek % 14,6 egin zuten gora 2016 eta 2019 artean, eta atzerritarren kasuan, berriz, % 66,8. Pandemiaren etorrerarekin, jaitsiera antzekoa izan zen bi taldeetan, % 19koa, baina horren ondoren, 2020-2022 aldian igoera handiagoa izan da berriro ere atzerritarren artean, % 35,2koa, biztanleria nazionalaren % 12,2ren aldean. Beraz, aztertutako aldi osoan, 2016tik 2022ra, biztanleria atzerritarren lan-istripuak % 80,6 igo ziren, eta biztanleria nazionalaren artean, berriz, % 3,9.

Lan istripuen denbora-bilakaeran nazionalitatearen arabera dauden ezberdintasun horiek antzera gertatzen dira bi modalitateetako bakoitzean, lanaldian eta *in itinere*, baina zenbait berezitasun aipatu behar dira. Lehenengo motari dagokionez (35biztanleria atzerritarren lanaldiko

istripuen gorakada % 69koa izan zen 2016 eta 2019 artean, biztanleria nazionalaren artean izandako igoera % 14,4tik oso urrun. Gainera, pandemiaren ondoren, biztanleria nazionalaren lanaldiko istripuen gorakada % 11,7koa izan zen, eta atzerriko biztanleriaren kasuan, berriz, % 33,9koa. Beraz, bi populazioetan lanaldiko istripuak areagotzeko joera antzekoa da, baina atzeritarren artean askoz sendoago gertatzen da.


35. grafikoa. Laneko eta lanaldiko istripuen guztizko kopurua, nazionalitatearen arabera. 2016-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) oinarrituta

In itinere istripuen kasuan, askoz ere kopuru txikiagoarekin, atzeritarren artean bilakaera negatiboagoa izan liteke. Hala, joan-etorrietan gertatutako istripuak % 47,7 igo ziren 2016 eta 2019 artean atzeritarren kasuan, espainarren % 15,7ren aurrean. Era berean, pandemian zehar jaitsiera txikiagoa izan zen atzeritarren kasuan, 2020an 2019an baino % 7 gutxiago, eta espainiar nazionalitateko pertsonen istripuak gehiago murriztu ziren, % 24. Eta, berriz ere, azken 2020-2022 aldiko hazkundearekin alderatuta, gorakada hori atzeritarren artean handiagoa izan zen, % 52ko hazkundearekin, % 13,9koarekin nazionaletan. Horrela, 2016-2022 epealdi osoan, *in itinere* istripuek, zifra absolutu txikiak izan arren, ehunekoetan hazkunde oso nabarmena izan dute, % 108koa biztanle atzeritarren artean, eta hazkundea soilik % 0,2koa izan da biztanleria nazionallean.

36. grafikoa. *In itinere* lan-istripuen kopurua, nazionalitatearen arabera. 2016-2022




Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) oinarrituta

1.000 langileko istripu-tasa eta nazionalitatearen arabera denboran izandako bilakaera aztertzen ditugunean, antzematen da istripu tasa handiagoa dela atzerritarren artean, bai istripuen guztizkoan, bai lanaldian gertatzen direnetan (37. grafikoa). Hala, biztanleria atzerritarrak milako 36,5eko tasa zuen 2016an, eta milako 44,5era igo zen 2022an. Biztanleria nazionalaren artean, berriz, tasa ia ez da aldatzen, mila biztanleko 34,7koa izan zen 2016an, eta hamarren bat gehiago 2022an.

Izan ere, hazkundearen bilakaera aldia osoan zehar aurretik azaldutako zifra absolutuen antzekoa da, 2016tik aurrera, istripu tasak handiagoak dira, eta bi taldeen arteko aldea pixkanaka handitzen jarraitzen du, 2022an ia 10 puntuko aldea izateraino, 2020an tasaren jaitsiera antzekoa izanik, baina pandemiaren aurreko eta osteko aldiak igoera handiagoak izan dira.

Istripu motaren eta denboran izan duen bilakaeraren arabera tasan izandako aldeak kontuan hartuta, atzerritarren artean lanaren garapenean (lanaldian) gertatzen diren istripuen tasa handiagoa da, eta aldi osoan zehar, 2022an milako 40,4koa izan da, eta biztanleria nazionalan, berriz, tasa milako 30,6koa da.


37. grafikoa. Guztizko eta lanaldiko lan-istripuen tasa, nazionalitatearen arabera. 2016-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJAAn (Eustat) oinarrituta

In itinere istripuen kasuan, nabarmentzekoa da biztanleria atzerritarraren tasak izandako bilakaera; izan ere, 2016an milako 2,6koa baino txikiagoa bazen ere, haren goranzko bilakaerak, 2022an biztanleria nazionalaren maila berean kokatzea eragin du, milako 3,8an. Izan ere, biztanleria nazionalaren kasuan aldi osoan istripu tasak beherakada txiki bat izan du, 2022an 2016arekin alderatuta % 3,3 gutxiago, baina biztanleria atzerritarraren kasuan igoera % 40,5koa izan da.

38. grafikoa. *In itinere* lan-istripuen tasa, nazionalitatearen arabera. 2016-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJAAn (Eustat) oinarrituta

Lan-istripuen kopurua larritasunaren arabera aztertzean ikusten da, istripu arin zein larrien bilakaera goranzkoa dela bi taldeetan, baina nabarmenagoa atzerritarren artean. Hala, istripu arinen kasuan, 2016-2022 aldiko igoera % 3,7koa izan da biztanleria nazionalan, eta atzerritarretan, berriz, % 81,5koa. Istripu larrien kasuan ere igoera handiagoa da atzerriko langileen taldean, % 66,7 eta % 20,3, hurrenez hurren; hala ere, kasu kopuru txikia denez, beharrezkoa da igoerak tentuz interpretatzea. Era berean, gertatzen da istripu hilgarrietan ere, biztanleria nazionalaren artean % 23,7 murriztu dira, 2016an 38 izan ziren, kopuru bereziki handia aldi horretako gainerako urteekin alderatuta, 2022an 29 izan ziren, eta atzerritarren kasuan gorabehera handia dago urtearen arabera, nahiz eta badirudi gora egin duela.

5. taula. Lan-istripuen kopurua, larritasuna eta nazionalitatearen arabera. 2016-2022

		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	Areagotzea 2016-2022
Arina	Nazionala	28.878	30.387	30.369	33.106	26.744	29.621	29.952	% 3,7
	Atzerritarra	2.039	2.461	2.777	3.422	2.736	3.210	3.700	% 81,5
Larria	Nazionala	153	177	178	180	179	153	184	% 20,3
	Atzerritarra	15	13	21	20	16	27	25	% 66,7
Hilgarria	Nazionala	38	30	28	23	25	26	29	% -23,7
	Atzerritarra	2	1	7	5	4	5	4	% 100,0

Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) oinarrituta.

1.000 langileko tasei dagokienez, istripuen larritasunaren arabera, atzerritarren arteko intzidentzia biztanleria nazionalarena baino handiagoa da, bai istripu arinetan, bai larrietan, eta aldi osoan zehar. Tasen bilakaerak erakusten du istripu arinetan aregotzea handiagoa dela atzerritarren artean, baina istripu larrien kasuan, ez dira ezberdintasun horiek hautematen, eta aldi horretan oso antzeko igoerak aurkitzen dira bi taldeetan, % 16,7koa biztanleria nazionalaren artean eta % 15,4koa biztanleria atzerritarren. Berriz ere, istripu hilgarrien datuek bilakaera negatiboa erakusten dute biztanleria atzerritarrentzat, 2022an biztanleria nazionalak baino tasa handiagoarekin, eta baita taldearen barruan hazkunde handiagoa ere 2016az geroztik, milako 0,03tik milako 0,05era.

**6. taula. Lan-istripuen tasa, larritasuna eta nazionalitatearen arabera.
2016-2022**

		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	Areagotzea 2016-2022
Arina	Nazionala	34,08	35,33	34,94	37,77	31,22	34,24	34,13	% 0,15
	Atzerritarra	35,65	41,09	41,95	45,81	37,74	42,57	43,74	% 22,69
Larria	Nazionala	0,18	0,21	0,20	0,21	0,21	0,18	0,21	% 16,67
	Atzerritarra	0,26	0,22	0,32	0,27	0,22	0,36	0,30	% 15,38
Hilgarria	Nazionala	0,04	0,03	0,03	0,03	0,03	0,03	0,03	% -25,00
	Atzerritarra	0,03	0,02	0,11	0,07	0,06	0,07	0,05	% 66,67

Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA(n) (Eustat) oinarrituta.

**Ezberdintasunak lan-istripuetan, nazionalitatea eta sexuaren arabera
(2019-2022)**


Orain arte deskribatutako datuek ezberdintasunak erakusten dituzte, bai istripu-tasari dagokionez, bai horren denbora-bilakaerari dagokionez, langile nazionalen eta atzerritarren artean. Gizonen eta emakumeen istripu tasa bereizita aztertuko duen genero-ikuspegia txertatzeak aukera emango du desberdintasun interesgarri batzuk antzemateko (39. grafikoa).

Lehenik eta behin, oso nabarmena da istripuen kopuruan eta intzidentzia-tasan gizonen eta emakumeen artean dagoen ezberdintasuna, lehenengoan kasuan askoz handiagoa baita. Bigarrenik, eta istripu-tasari erreparatuta, ezberdintasun argiak daude nazionalitate taldeen artean, sexuaren arabera. Horrela, lehen ikusi dugun bezala, biztanleria atzerritarren lan-istripuen tasa biztanleria nazionalarena baino handiagoa bada, sexuaren arabera bereiz gero, ikusten da nazionalitatearen araberako alde hori batez ere gizonen artean dagoen desberdintasunaren ondorioz gertatzen dela. Hau da, gizonezko langileen istripuen tasa askoz handiagoa da atzerritarretan, milako 66,2, espainiar nazionalitateko gizonen tasarekin alderatuta, 2022an milako 46,6. Hala ere, emakumeen artean, ez dago alderik nazionalitatearen araberako istripu tasan. Izan ere, aldian zehar, emakume nazionalek emakume atzerritarrek baino istripu-tasa handixeagoa zuten, eta ia berdina izan zen 2022ko azken urtean (milako 20,6 nazionaletan eta milako 20 atzerritarretan).

2019tik 2022ra bitarteko bilakaerari begiratuz gero, hautematen da, oro har, gizonezko nazionalen artean gutxiago murriztu dela istripu-tasa atzerrita-

rrena baino, % 8,7 txikiagoa izan baita lehenengoan artean (2020an beherakada handia izan zuen COVID-19 pandemiarekin lotuta, 2021ean eta 2022an partzialki berreskuratuta), eta atzerriko gizonetan, berriz, % 16 txikiagoa, nahiz eta azken horiek nazionalak baino 20 puntu gehiagoko intzidentzia izaten jarraitzen duten. Emakumeen kasuan, kontrako egoera gertatzen da, emakume nazionalen artean istripu tasa % 10,9 murriztu da, emakume atzeritarren artean, aldiz, tasa % 3,9 igo da.


39. grafikoa. Lan-istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA(n) (Eustat) oinarrituta

Istripu motaren arabera tasetan sakontzen badugu, hau da, lanpostuan edo joan-etorrietan garatzen den kontuan hartuta, sexuaren arabera, berriz ere ikusten dugu nazionalitatearen arabera istripu tasan dauden ezberdintasunek neurri handi batean gizonen kasuan eragiten dutela, baina ez emakumeen kasuan. Horrela, lehen lanaldiko istripuen kasuan istripu motaren arabera bereiztean ikusten genuen biztanleria atzeritarren tasa handiagoa (40. grafikoa), oraindik ere handiagoa da gizonen artean, 2022an 19 punturainoko aldea baitago nazionalen eta atzeritarren artean (milako 43,4 eta 62,4, hurrenez hurren). Emakumeen kasuan, ezberdintasun txikiak daude nazionalen eta atzeritarren artean, eta denbora-bilakaera txikia dute. Izan ere, tasak zertxobait handiagoak dira nazionalitate espainiarra duten emakumeen artean, nazionalitate atzeritarra dutenen artean baino. Aztertutako aldiaren azken urtean, 2022an, nazionalen eta atzeritarren tasak lanaldiko istripuetan ia berdinak dira.


40. grafikoa. Lanaldiko lan-istripuen tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJAAn (Eustat) oinarrituta

In itinere istripuen kasuan, ia ez dago ezberdintasunik gizonen arteko tasen artean nazionalitatearen arabera, azken urtean, igoera txiki bat gertatu da atzerritarren artean, baina ez nazionalen artean. Emakumeen artean, espainiar nazionalitatea dutenen artean tasak handiagoak dira, baina atzerritarren kasuan gorakada progresiboa ikusten da, 2022an ia berdina izan arte.

41. grafikoa. *In itinere* lan-istripuen tasa, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. 2019-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJAAn (Eustat) oinarrituta

Azkenik, istripuen tasetan larritasunaren arabera dauden ezberdintasnei dagokienez⁸, istripu guztietan ikusi den bezala, istripu arinetan gizon nazionalen eta atzerritarren arteko alde handia ikusten da, beheranzko bilakaerarekin bi taldeetan, baina txikiagoa atzerritarren artean. Emakumeen kasuan, espainiarrek atzerritarrek baino tasa handiagoa dute urte guztietan, baina badirudi distantzia laburtu egiten dela urteetan zehar.

Istripu larri edo hilgarriei dagokienez, berriz ere atzerriko gizonen nazionalen baino tasa handiagoak dituzte, kasu honetan, txikiak izan arren, espainiar gizonen baino ia bi aldiz handiagoak dira. Emakumeen kasuan, nazionalen atzerritarrek baino tasa handiagoa dute, baina nahiko ezegonkorak dira eta tentuz interpretatu behar dira

7. taula. Lan-istripuen tasa, larritasuna, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022

			2019	2020	2021	2022
Gizonak	Arina	Nazionala	50,73	41,80	45,71	46,24
		Atzerritarra	78,06	62,40	61,89	65,54
	Larria/hilgarria	Nazionala	0,34	0,36	0,33	0,39
		Atzerritarra	0,70	0,47	0,77	0,61
Emakumeak	Arina	Nazionala	23,00	19,30	21,23	20,52
		Atzerritarra	19,24	15,30	18,04	19,94
	Larria/hilgarria	Nazionala	0,11	0,09	0,07	0,07
		Atzerritarra	0,00	0,09	0,00	0,05

Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA (Eustat) oinarrituta.

Ezberdintasunak lan-istripuetan nazionalitatea, adina eta sexuaren arabera (2019-2022)


Nazionalitatearen eta azken urteetako bilakaeraren arabera aldeak ezberdinak dira aztertutako adin-taldearen arabera. Hala, alde batetik, gizonen artean eta adin gazteeneko taldean, 16 eta 29 urte bitartekoetan (42. grafikoa), 2020an istripuen kopuruak beherakada nabarmena izan du,

⁸ Istripu larrien eta hilgarrien tasak taldekatu dira.

eta 2021ean eta 2022a berriz ere suspertu da, biztanleria nazionalaren 2019ko zifren azpitik geratu da (2.765 kasu 2022an), eta apur bat gainditu ditu 2019koak atzerritarren artean (611 kasu 2022an). Istripu tasak, hala ere, bilakaera hobea erakusten du; izan ere, pandemiaren ondoren ia ez da igoyerarik hautematen, eta 2022an are gehiago murrizten da, are gehiago atzerriko gizonetan (2019an baino % 40,2 gutxiago) nazionaletan baino (2019an baino % 27 gutxiago), eta aztertutako azken urtean milako 65,8koa eta milako 46,9koa izan da, hurrenez hurren.

Bestalde, emakume gazteenen artean, bilakaera gizonenaren oso bestelakoa da. Istripuen kopuruari dagokionez, badirudi 2020ko jaitsiera gehiago mantendu dela emakume nazionalen artean, eta aldiaren amaieran, 2022an, 2019tik beherako zifrak izan ditu; emakume atzerritarrek berriz, % 22ko hazkundera izan dute aldi osoa kontuan hartuta (2019ko 163 istripuetatik 2022ko 200 istripuetara igaro da). Gainera, ezbehar-tasei dagokienez, bilakaera gizonena baino ezberdinagoa da. Emakume nazionalen artean ere tasa jaitsi egin da, milako 24,5 istripuitik milako 20,5era, baina emakume atzerritarren artean 2020tik tasa handitu egin da, eta milako 26,5 izatera iritsi da 2022an. Hau da, emakume atzerritarrek, nazionalek baino tasa baxuagoetatik abiatuta, beren goranzko bilakaera dela eta, 2022an nazionalek baino istripu-tasa handiagoa izan dute. Nolanahi ere, emakumeen tasen arteko aldeak gizonenak baino txikiagoak izaten jarraitzen dute, gazteen adin-talde horretan ere.

42. grafikoa. 16-29 urteko biztanleriaren laneko istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022




Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA-n (Eustat) oinarrituta

Bigarrenik, 30-49 urteko adin-taldeari dagokionez (43. grafikoa), ikusten dugu, 16 eta 29 urte bitartekoek baino istripu gehiago izatetik abiatuta, istripu zifren bilakaera gazteen taldearen antzekoa dela, nahiz eta tasetan ezberdintasunak aurkitu. Alde batetik, tasaren jaitsiera ez da gazteenen artean bezain handia, ez gizonentzat, ez emakumeentzat. Gainera, nazionalitate-taldearen arabera tasen arteko aldea txikiagoa da talde horretan gazteenen eta zaharreneen artean baino.

Bestalde, 2020ko beherakadaren ondoren, gizon nazionalen intzidentzia zertxobait handitu da 2021ean, eta egonkor mantendu 2022an, milako 52,2koa izan baita 2022an; gizon atzerritarren artean, berriz, 2022an gorakada bat gertatu da, milako 67,4ra iritsiz; beraz, nazionalitate-taldeen arteko intzidentziaren aldea 15 puntukoa da.

Azkenik, emakumeen artean, antzeko bilakaera hautematen da ezbehartasura murrizte aldera, baina gazteenen artean baino neurri txikiagoan. 30-49 urteko emakumeen artean, istripuen tasa 16 eta 29 urte bitartekoen taldean baino zertxobait txikiagoa da, batez ere emakume atzerritarren artean, 2022an milako 20,1eko tasarekin, adin bereko nazionalen oso antzekoa (milako 19,6).

43. grafikoa. 30-49 urteko biztanleriaren laneko istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022




Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA(n) (Eustat) oinarrituta

Azkenik, adin-talde zaharrenean, 50-64 urte artekoan (44. grafikoa), atzerritarren istripu kopuru txikia ikusten da, batez ere emakumeen kasuan,

baina goranzko bilakaerarekin bi sexuetan. Biztanleria nazionalean ere goranzko bilakaera izan da eta 2022an istripu tasa handiagoa izan da 2019an baino, batez ere gizonen artean, gainerako adin-taldeetan ez bezala.

Lan-istripuen tasei dagokienez, gizonen bilakaera 30-49 urteko taldearen antzekoa da, hau da, 2020an gizon atzerritarren artean nabarmen murriztu da, baina oso gutxi nazionalen artean; ondoren, zertxobait handitu da bai nazionalen artean, bai atzerritarren artean. Horrela, 2019ko mailen oso antzeko dago nazionalen artean, eta nabarmen txikiagoa atzerritarren artean. Emakumeen artean, nazionalek tasa handiagoa dute, eta tasa hori nahiko egonkor mantendu da aldi horretan (milako 24-22), atzerritarrek, berriz, tasa txikiagoak dituzte, talde horretan, eta 2022an nazionalekin alderatuta ia 9 puntu gutxiago.

44. grafikoa. 50-64 urteko biztanleriaren laneko istripuen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA(n) (Eustat) oinarrituta

Hala, aurreko datuek adierazten digute intentsitate ezberdineko genero-desberdintasunak daudela adin-talde bakoitzean eta migrazio jatorriko talde bakoitzean. Istripu tasetan gizonen eta emakumeen artean dauden ezberdintasun handiagoak edo txikiagoak aztertuz gero, alde batetik, nazionalen artean, ikus dezakegu 50-64 urteko adin-taldean dagoela alderik txikiena, 19 puntukoa, eta genero-arrakalarik handiena, berriz, 30-49 urtekoetan dagoela, 32 puntu gizonen eta emakumeen artean. Bestalde, biztanleria atzerritarrean, gizonen eta emakumeen arteko tasan alderik txikiena gazteenen artean dago, 39 puntukoa; beste bi adin-taldeetan, aldiz,

genero-arrakala 47 puntukoa da 30-49 urtekoen taldean, eta 49 puntukoa 50-64 urtekoetan. Beraz, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak handiagoak dira beti atzerritarren kasuan, gizonen tasa handiagoa delako eta emakumeen tasa txikiagoa delako.

Analisian istripu mota txertatzen badugu, hau da, istripua lanaldian edo *in itinere* gertatzen bada, adin-talde bakoitzeko intzidentzien bilakaeran zenbait ezberdintasun ikus daitezke (45. grafikoa). Lehenik eta behin, lanaldiko istripuen bilakaera gizon gazteenen artean beheranzkoa da, bereziki atzerritarren artean, baina tarteko adinekoetan eta zaharragoetan, pandemiaren ondorioz 2020an tasan izandako murrizketaz gain, bilakaera apur bat gorakorra da, bai atzerritarren artean, bai nazionalen artean, betiere pandemiaren aurreko mailetara iritsi gabe. *In itinere* istripuetan, 30 urte eta gehiagoko taldeetan, ia ez da aldaketarik ikusten 2019 eta 2022 artean, baina talde gazteenean, gizon atzerritarren istripu tasa igotzen ari dela dirudi.

Aurreko grafikoetan ere ikusten dugun emakumeen taseen bilakaerari dagokionez, ez dirudi aldaketa garrantzitsurik gertatu denik aztertutako aldian, ez lanaldiko istripuetan, ez *in itinere* istripuetan. 30 eta 49 urte bitarteko emakumeen lanaldiko istripuetan soilik ikus daiteke igoera txiki bat 2020tik, 4 puntukoa emakume atzerritarren artean eta 1,6 puntukoa emakume nazionalen artean. Zaharrenetan, 50 urtetik gorakoetan, ez dago ezberdintasunik *in itinere* istripuetan, ezta emakume nazionalen lanaldikoetan ere, baina badirudi murrizketa arina gertatzen dela (4,5 puntu) 2020tik emakume atzerritarren artean lanaldian gertatzen diren istripuen intzidentzian.

45. grafikoa. Lan-istripuen tasa, mota, nazionalitate, sexua eta adin-taldearen arabera. 2019-2022



Iturria: norberak egina Lan istripuen estatistikan (OSALAN) eta BJA-n (Eustat) oinarrituta

4.2. Ezberdintasunak gaixotasun profesionaletan biztanleria nazionalaren eta atzerritarren artean

Jarraian, gaixotasun profesionalen zifrak eta azken bi urteetan izan duten intzidentzia deskribatzen dira, datu eskuragarriak daude (2021-22)⁹, baita 2016tik 2022ra bitarteko aldirako ere. Langileen nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabeko aldeak kontuan hartzen dira. Emaitzak gaixotasun profesional guztietarako aurkezten dira.

Gaixotasun Profesionalen zifrak eta tasak 2021-22an

Gaixotasun profesionalak ez ziren hain ohikoak izan atzerritarren artean, gizonetan zein emakumeetan, eta aztertutako adin-talde guztietan, emakume gazteenen artean izan ezik. Nazionalitatearen arabeko gaixotasunen tasa gordina aztertzean, tasa hori espainiar biztanlerian altuagoa da, milako 3,54 gizonetan eta 2,29 emakume nazionaletan, aldiz, milako 2,03 eta milako 1,25 gizon eta emakume atzerritarretan. Adinaren arabera estandarizatutako tasak oso antzeko datuak erakusten ditu, zertxobait handiagoa atzerriko gizonen artean (milako 2,28) eta baxuagoa emakume atzerritarren artean (milako 1,11).

Beraz, biztanleria atzerritarren eta nazionalaren arteko ratioa ikusita, gizonen kasuan atzerritarren tasa espainiarrena baino % 43 txikiagoa da, % 35 adinaren eragina kenduz gero. Emakumeen artean, aldeak antzekoak dira, atzerritarren tasa espainiarrena baino % 45 txikiagoa da, eta % 51 adinaren eragina ezabatzen badugu. Adinaren arabera, ezberdintasunak handiagoak dira adinean aurrera egin ahala, eta alde handiagoak daude atzerritarren tasan nazionalen tasan baino, adinak gora eginten duenean. Ezberdintasunen igoera hori emakumeen artean handiagoa da, izan ere, gazteen artean atzerritarren tasa nazionalena (% 9) baino zertxobait handiagoa da, helduenetan atzerritarren tasa nazionalena baino % 75 txikiagoa da.

⁹ 2021 eta 2022 urteetako datuak multzokatu dira, emaitzak sendoagoak izan daitezkeen.


8. taula. Gaixotasun profesionalen tasa (gordina, estandarizatu eta adin-taldeka), nazionalitatea eta sexuaren arabera. Guztira eta ratioa (atzerritarra/nazionala). 2021-2022

	Gizonak			Emakumeak		
	Nazionala	Atzerritarra	Ratio	Nazionala	Atzerritarra	Ratio
Tasa gordina	3,54	2,03	0,57	2,29	1,25	0,55
Tasa estand.	3,53	2,28	0,64	2,28	1,11	0,49
16-29	1,21	1,07	0,88	0,99	1,07	1,08
30-49	3,75	2,11	0,56	2,45	1,49	0,61
50-64	4,01	2,92	0,73	2,48	0,61	0,25

Iturria: norberak egina CEPROSS sistemaren estatistika-fitxategian eta BJAn (Eustat) oinarrituta.

Jarraian, zehaztasun handiagoz deskribatuko dira eskuragarri dauden azken bi urteetako (2021-2022) gaixotasun profesionalen zifra absolutuak eta intzidentzia. Gaixotasun profesionalen zifretatik hasita, 2021eko eta 2022ko urteen baturaren ondorioz, gizon nazionalak 3.164 gaixotasun aitortu dituzte, eta emakumeen kopurua 1.893 gaixotasunekoa da. Atzerritarren artean, 174 kasu daude gizonen artean eta 92 emakumeen artean. Talderik ugariena 1.651 gizon eta 1.004 emakume nazional, 30 eta 49 urte bitartekoak, eta bes-talde, 50-64 urteko gizonetzko nazionaletan 1.379 gaixotasun aitortu ziren.


46. grafikoa. Gaixotasun profesionalen kopurua, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022



Iturria: norberak egina CEPROSS sistemaren estatistika-fitxategian oinarrituta

Adin-taldeen arabera tasak aztertuz gero, ezberdintasun txikiak ikusten dira gaixotasun profesionalen intzidentzian biztanleria nazionalaren eta atzerriarren artean talderik gazteenean (16-29 urte), eta are gehiago, tasa zertxobait handiagoa da emakume atzerriarren artean nazionalen artean baino (milako 1,1 eta milako 1, hurrenez hurren). Hala ere, 30-49 urteko adin-taldean, jatorriaren arabera aldeak nabarmenak dira, gaixotasun profesionalen intzidentzia gizon nazionalen artean milako 3,8koa da, eta milako 2,1ekoa atzerriarren artean. Berdin gertatzen da emakumetan, puntu bateko aldearekin bi tasen artean, (milako 2,5 nazionaletan eta milako 1,5 atzerriarretan). Azkenik, adin heldueneko taldean (50-64 urte), nazioko zein atzerriko gizonengan intzidentzia handiena duen taldea milako 4ra iristen da lehenengoan artean, eta 2,9ra bigarrenen artean. Hain zuzen ere, adin-talde horretan gertatzen da ezberdintasunik handiena jatorriaren arabera emakumeen kasuan, mila langile nazionaleko 2,5 gaixotasun profesionala aitortu dute, eta milako 0,6 soilik emakume atzerriarren kasuan.

47. grafikoa. Gaixotasun profesionalen tasa, nazionalitatea, sexua eta adin-taldearen arabera. 2021-2022



Iturria: norberak egina CEPROSS sistemaren estatistika-fitxategian eta BJA (Eustat) oinarrituta


Gaixotasun profesionalen zifren eta tasen bilakaera (2016-2022)

Bigarrenik, 2016-2022 aldian nazionalitatearen arabera aitortutako gaixotasun profesionalen bilakaerari dagokionez (48. grafikoa), COVID-19aren pandemiaren aurreko urteetan goranzko joera ikus daiteke, zifrak % 11,8 igo bai

tziren biztanleria nazionalaren artean eta % 47,3 atzerritarren artean, nahiz eta 2019an biztanleria nazionalean jaitsiera txiki bat ikusten zen. Igoera hori jaitسي egin zen 2020an, % 23-26 inguru, bi taldeetan, eta berriro ere 2020 eta 2022 artean % 17,5 handitu zen Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean, eta antzera, % 16,7 atzerritarren artean, eta ez zen iritsi pandemiaren aurreko mailetara lehen taldean. Aldi osoan (2016-2022), gaixotasun profesionalen zifrak % 4 murriztu ziren biztanleria nazionalean, eta % 30,8 handitu atzerriko nazionalitatea duten biztanleen artean.

Kopuru absolutuen bilakaera hori biztanleria landunaren hazkundearen ondorio izan daiteke, oro har, baina talde batzuetan modu espezifikoagoan, taseen bilakaerarekin aldera daiteke, antzeko joera erakusten baitu, nazionalen artean aldi osoan % 7,4ko jaitsiera garbia izan da, eta % 11,3koa atzerriko nazionalitatea dutenen artean. Izan ere, azken horretan ikusten da 2021ean gorakada bat izan zela COVID-19aren krisien ondoren, eta neurri berean jaitسي zela 2022an 2020ko tasetara iritsi arte. Biztanleria nazionalaren artean hazkundea iraunkorragoa da, eta badirudi intzidentzia berreskuratzen ari dela, 2020a baino lehenagoko mailetara iritsi gabe.

48. grafikoa. Gaixotasun profesionalen kopurua eta tasa, nazionalitatearen arabera. 2016-2022



Iturria: norberak egin estatistika CEPROSS sistemaren eta BJAn (Eustat) oinarrituta


Ezberdintasunak gaixotasun profesioaletan, nazionalitatea eta sexuaren arabera (2019-2022)

Azkenik, nazionalitate talde bakoitzean genero-desberdintasunek izan duten bilakaera aztertze aldera, 2019tik 2022ra bitarteko zifrak eta tasak erakusten dira gizonentzat eta emakumeentzat, bereizita (49. grafikoa). Lehenik eta

behin, edozein nazionalitateko emakumeen artean gaixotasun profesionalen kopurua txikiagoa dela ikusten da, baita mila langileko tasa gizonena baino txikiagoa ere, eta aztertutako urte guztietan. Zifra absolutuen joera gizon nazionaletan eta atzerritarretan antzekoa da, % 18-19ko jaitsierarekin, 2020an izandako beherakada bortitzaren ondorioz; emakume nazionaletan ere aldi horretan beherakada garbia hautematen da, pandemiaren ondorioz, baina gizonena baino txikiagoa izan da, % 9,4koa, eta ez da iristen pandemia baino lehenagoko mailetara, baina zifrak hurbil daude. Emakume atzerritarren kasuan, ordea, zifra oso baxuak gizonenak baino txikiagoak badira ere, 2022an 2019koaren oso antzeko gaixotasun profesionalen kopurua aitortu zen.

Tasari dagokionez, berriz ere, biztanleria nazionalak gizonengan eta emakumeengan duen intzidentziaren bilakaera zifra absolutuenaren antzekoa da; izan ere, 2020an beherakada nabarmena izan zen, eta pixkanaka suspertzen ari da 2022ra arte. Hala ere, biztanleria atzerritarren, tasa ezegonkorragoa da, batez ere gizonen artean; izan ere, 2021ean gaixotasun kopuruak nabarmen igo da (milako 2,5), 2019an baino maila altuagoetaraino (milako 2,4), eta berriro ere behera egin du azken urtean (milako 1,6). Bestalde, emakume atzerritarretan, tasak behera egin zuen 2020an, milako 1,4tik milako 0,9ra, eta 2021ean gora egin zuen berriro, eta 2022an egonkor mantendu da (milako 1,2 bi urteetan).

49. grafikoa. Gaixotasun profesionalen kopurua eta tasa, nazionalitatea eta sexuaren arabera. 2019-2022



Iturria: norberak egin CEPROSS sistemaren estatistika-fitxategian eta BJA (Eustat) oinarrituta

5. Lehentasunezko ikerketa-ildoak eta datuak biltzeko proposamenak biztanleria migratzailearen laneko osasuna aztertzeko

Kapitulu honetan, Euskal AEko biztanleria migratzailearen lan baldintzen, lan arriskuen eta osasun kalteen ezagutzan aurrera egiteko lehenetsi nahi diren ikerketa-ildo nagusiak biltzen dira, bai eta biztanleria autoktonoarekiko ezberdintasunak ere. Jarraian azalduko diren ildoak Delphi metodoaren bidez egindako azterketaren emaitza dira, azterlan horretan, lan osasuneko eta migrazio ikasketetako adituak parte-hartu dute. Informazioa biltzeko teknika horri esker, ikerketarako ildo edo arlo jakin batzuk lehenetsi dira, eta beharrezkoa da horiek garatzen hastea, edo orain arte gure testuinguruan eskuragarri zegoen ezagutzan sakontzea eta/edo eguneratzea.

Era berean, kapitulu honek datuen bilketa hobetzeko proposamen batzuk ere aurkezten ditu, biztanleria migratzailearen lan osasunaren azterketa integrala egiteko balio duten aldagaiei edo adierazleei dagokienez, bai lan osasunari buruzko inkestetan edo erregistroetan, bai biztanleria migratzaileak hainbat eremutan, besteak beste, lan-eremuan duen egoera ezagutzeko erabiltzen direnetan. Proposamen horiek Delphi azterketaren emaitzetatik, berrikuspen bibliografikotik eta ikerketa-taldearen esperientziatik datoz.

5.1. Ikerketa-ildoen proposamenak

Ikerketa-ildoak eta okupazio-sektoreak identifikatzea

Adituek berez identifikatu zituzten biztanleria migratzailearen lan-osasuna aztertzeko lehentasunezko zat jotako hainbat ikerketa-ildo. Ikerketa-taldeak bi talde handitan sailkatu zituen lerro horiek. Lehenengo taldean, biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren artean lan osasuneko hainbat gaitan dauden desberdintasunei buruzko guztiak sartu ziren, bai eta biztanleria migratzailean bereziki garrantzitsuak diren lan-arrisku mota ezberdinen eraginpean egoteari buruzkoak ere. Bigarren taldean, arau alderdiei eta lan-harremanei buruzko azterketa-ildoak sartu ziren (9. taula).

9. taula. Adituek lehenengo txandan identifikatutako lehentasunezko ikerketa-ildo orokorrak

Lehenetsi beharreko gaiak. Desberdintasunak eta arriskuekiko esposizioa
Biztanleria migratzailean eta autoktonoan informaltasunak eta osasun mentaleko prekarietateak eragindako desberdintasunak.
Genero soldata-arrakalan dauden desberdintasunak migratzaileen eta autoktonoen artean.
Biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren arteko desberdintasunak lan-istripuetan, gaixotasun profesionaletan eta lan-hilkortasunean.
Migratzaileak arrisku ergonomikoen eraginpean egotea (batez ere mugimendu errepikakorrak eta jarrera behartuak).
Migratzaileak segurtasun-arriskuen eraginpean egotea (batez ere babes-ekipamendu eza, erortzeak, beroa).
Migratzaileak higiene-arriskuen eraginpean egotea (batez ere pestizidak, produktu kimiko arriskutsuak eta garbiketa-agentek).
Migratzaileak arrisku psikosozialen eraginpean egotea (bereziki lan karga eta erritmoak, lanaldi luzeetako isolamendua, tratu txarrak, estresa, atsedanak ez betetzea).
Lehenetsi beharreko gaiak. Araudia eta lan-harremanak
Lan-merkatua arautzen duten arauak biztanleria migratzailearengan duten eragin desberdina.
Migrazio-araudiak biztanleria migratzailearen lan-baldintzetan dituen ondorioak.
Lan-eskubideen ezagutza eta biztanleria migratzailea babesteko neurriak.
Sindikatuak biztanleria migratzailearen lan-baldintzak defendatzeko duten zeregina.
Biztanleria migratzaileari aplikatzen zaizkion lan kudeaketako enpresa praktikak.
Biztanleria migratzailearen lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen jakinarazpena.
Biztanleria migratzaileak lan-kontentsazioko onurak eskuratzea.
Oztopoak eta diskriminazio-moduak osasun-zerbitzuetarako sarbidean eta biztanleria migratzailearen lan-osasuneko arazoei arreta ematean.

Iturria: norberak egina.

Era berean, genero-ikuspegitik lehenetsi beharreko hainbat ikerketa-gai identifikatu ziren (10. taula), lan-baldintza ezberdinek edo hainbat lan-sektorek lan osasunean duten eraginean genero-desberdintasunen analisia jasotzen zuten, bai eta lan-osasunean informazioa biltzeko moduak berrikustea edo normalean aintzat hartzen ez diren emakumeentzat garrantzitsuak diren elemantuak sartzea.

10. taula. Adituek lehen txandan identifikatutako lehentasunezko ikerketa-ildoak genero-ikuspegitik Adituek lehen txandan identifikatutako lehentasunezko sektore eta okupazio espezifikoak

Lehenetsi beharreko gaiak. Genero-ikuspegitik
Emakume migratzaileen lana eta familia bateragarri egiteko baldintzen azterketa.
Emakume migratzaileen segregazio bertikala eta horizontala aztertzea.
Arrazakeriak eta matxismoak emakume migratzaileen lan-baldintzek osasunean duten inpaktuan duten intersekzioaren azterketa.
Lan-baldintzek emakume migratzaileen sexu- eta ugalketa-osasunean duten eragina.
Automedikazioari eta/edo gainmedikazioari lotutako arriskuak, minarekiko tolerantzia areagotzeko modu gisa.
Etxeko enpleguko lan-baldintzak (etxeko zaintzak, etxeko lanak, barne-erregimena) eta horiek osasun fisikoan eta psikologikoan duten eragina aztertzea.
Prostituzio-egoeran dauden emakume migratzaileen laneko osasunaren eta segurtasunaren azterketa.
Langile migratzaileek jasaten dituzten indarkeria motak aztertzea (sexuala, fisikoa, psikologikoa), bereziki zainketen eta nekazaritzaren lan-eremuan.
Gaixotasun profesionalen tipifikazioa genero-ikuspegitik berrikustea.
Lan-ikuskapenak barne-araubideko langileen ostatu- eta mantenu-baldintzak betetzean izandako jarduna deskribatzea.

Iturria: norberak egina.

Azkenik, biztanleria migratzailearen lan-osasunaren ikerketarako garrantzi berezikotzat jo ziren lan-sektoreak edo okupazio espezifikoak identifikatu ziren (11. taula). Sektore edo lanbide horietan bi talde hartu ziren kontuan: batetik, lan-baldintzei dagokienez garrantzitsuenak zirenak, eta, bestetik, osasunarekin lotutako arriskuei dagokienez beharrezkoenak zirenak.

11. taula. Adituek lehen txandan identifikatutako lehentasunezko sektore eta okupazio espezifikoak

Sektore edo lanbide espezifikoak. Lan-baldintzak
Arrantza.
Basogintza.
Nekazaritzako enplegua.
Sasoiko enplegua.
Garbiketa.
Ostalaritza.
Gela zerbitzariak.
Industria metalurgikoko y logistikoko azpikontratak.
Barne araubideko etxe zerbitzua.
Sektore edo lanbide espezifikoak. Osasunerako arriskuak
Zerbitzu soziosanitario formalak.
Etxe zerbitzua.
Adinekoen zaintza.
Eraikuntza.
Hoteleko zerbitzariak.
Riders (etxez-etxeke bizikleta banatzaileak).
Online salmenta banatzaileak.
Kontraturik gabeko langileak.

Iturria: norberak egina.


Ikerketa-ildoen eta okupazio-sektoreen lehenespena

Lehen garrantzitsutzat jotako ildoak eta sektoreak lehenetsi zituzten adituek. Hala, gaikako bi talde handietako lehenengoan (desberdintasunak eta arriskuekiko esposizioa) adituek ikerketa-ildo bakoitzari emandako puntuazioek lehentasuna eman zioten arrisku psikosozialen esposizioari, eta, ondoren, lan istripuetako (LI), gaixotasun profesionaleko (GP) eta laneko hilkortasuneko (LH) desberdintasunei. Hirugarrenik, biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren arteko desberdintasuna aztertu zen, informaltasunak eta prekarietateak osasun mentalean dituzten ondorioei dagokienez.

Ezberdintasun batzuk izan ziren ikerketa-ildo bakoitzari emandako puntuazioetan, adituen sexuaren arabera, eta horiek aipatzea merezi

du¹⁰. Esate baterako, ikusi zen gizonen lehen postuan jarri zutela lan istripuetako, gaixotasun profesioaletako eta lan hilkortasuneko desberdintasunen azterketa, eta, ondoren, segurtasun-arriskuak (bereziki, babes-ekipamendurik eza, erorketak, beroa). Emakumeek, berriz, arrisku psikosozialak lehenetsi zituzten, eta, ondoren, informaltasunak eta osasun mentaleko prekaritateak eragindako desberdintasunak. Gainera, badirudi soldata-arrakalan dauden genero-desberdintasunek lehenetsun handiagoa dutela gizonen artean emakumeen artean baino.

50. grafikoa. Adituak (0-100) lehenetsi beharreko ikerketa-ildoei (desberdintasunak eta arriskuekiko esposizioa) esleitutako puntuazioen batez bestekoa



Iturria: norberak egina


Lehenesteko eskatu zen bigarren ikerketa-ildoari dagokionez (araudia eta lan-harremanak), parte-hartzaileek nahiago izan zuten lan-merkatua arautzen duten arauak biztanleria migratzailearengan duten eragin desberdina aztertzea, eta, ondoren, osasun-zerbitzuetarako sarbidean eta lan-osasuneko

¹⁰ Adituaren sexuaren arabera emandako posizioei buruzko xehetasun gehiago eranskinean aurki daitezke.

arazoetarako arretan biztanleria migratzaileak aurkitzen dituen oztopoak eta diskriminazio-moduak identifikatzea. Era berean, garrantzitsutzat jo zen, hirugarrenik, biztanleria migratzailearen lan-eskubideen eta babes-neurrien ezagutza-maila aztertzea.

Era berean, gizonen eta emakumeen lehentasunezko gaiak zertxobait desberdinak izan ziren. Horrela, biztanleria migratzailearen lan istripuen eta gaixotasun profesionalen jakinarazpena berrikustea da aztertu beharreko lehentasunezko gaia gizonen kasuan, eta gai hori bera emakumeen artean seigarren postura jaisten da. Emakume adituentzat, lan-merkatua arautzen duten arauen eragin desberdina izan zen ondoen kokatu zen gaia; gizon adituentzat, berriz, bosgarren postuan kokatu zen. Hala ere, adostasunak ere izan ziren, esate baterako, osasun zerbitzuan diskriminazioa aztertzeak eta biztanleria horren osasun-arazoei arreta emateak duten garrantziaren inguruan, bigarren mailan baitaude bi sexuetan.

51. grafikoa. Adituek (0-100) lehenetsi beharreko ikerketa-ildoei (araudia eta lan-harremanak) esleitutako puntuazioen batez bestekoa




Iturria: norberak egin

Bestalde, biztanleria migratzailearen lan osasuna genero-ikuspegitik ikertzeko lehenetsi beharreko gai ei dagokienez, adituek garrantzi berezia eman zieten lan-baldintzek osasunean duten eraginaren arrazakeriaren eta matxismoaren arteko elkarguneari heltzen dioten azterketei, beraz, genero-arraza ardatzak erabiliko dituen ikuspegi interseksionala aplikatzeari garrantzia eman zitzaion, emakume migratzaileen lan baldintzen eta osasun arriskuen eraginpean ego-tearen eragin desberdina ulertzeko. Era berean, lehentasunezko zat jo zen etxeko enpleguko lan-baldintzak aztertzea, bai etxeko zaintzetan, bai etxeko lanetan, bai barne-erregimenean, eta horiek emakume migratzaileen osasun fisiko eta psikologikoan duten eragina. Adituek nabarmendu zuten beste gai bat segregazio bertikala eta horizontalaren azterketa izan zen, bai eta emakume migratzaileek lana eta familia bateragarri egiteko dituzten baldintzak aztertzea ere.

Genero-ikuspegitik abiatuta garrantzitsuenak diren ildo ei dagokienez ere, azterlanean parte hartu zuten gizon eta emakume adituen arteko zenbait desberdintasun aipatu behar dira. Hala, gaixotasun profesionalen tipifikazioa genero-ikuspegitik berrikustearen kasuan, gizonen kasuan lehentasunezko gaia da, eta emakumeen kasuan, berriz, azken postuan dago. Era berean, gizonek lehentasun handiagoa ematen diote lana eta familia bateragarri egiteari edo etxeko zerbitzuan barne aurabideko langileen lan ikuskapena egiteari, emakumeek ematen diotena baino. Bestalde, emakumeek gizonek baino lehentasun handiagoa ematen diete lan-baldintzek osasunean duten eraginari lotutako ildo ei, genero/arrazaren ikuspegi interseksionaletik edo etxeko enpleguaren baldintzek osasunean duten eraginetik abiatuta, bai eta nekazaritzaren edo zaintzaren eremuko indarkeria azterteari, prostituzio-egoeran dauden emakume migratzaileen osasun- eta segurtasun-baldintzei, eta automedikazioari edo gainmedikazioari lotutako arriskuei ere, laneko mina jasateko gisa.

52. grafikoa. Adituek (0-100) genero-ikuspegitik lehenetsi beharreko ikerketa-ildoei emandako puntuazioen batez bestekoa




Azkenik, sektore edo lanbide espezifikoari dagokienez, eta, zehazki, horien ohiko lan-baldintzak aztertzei dagokionez, adituek lehentasunezkoztat jo dute, lehenik eta behin, barne araubideko etxeko zerbitzuaren eremuko ikerketa. Izan ere, okupazio horri esleitutako batez besteko puntuazioa bigarren postuan dagoena baino 10 puntu handiagoa da. Nolanahi ere, bigarren eta hirugarren postuetan bereziki feminizatutako labideak nabarmentzen dira, hala nola gela zerbitzariak, edo garbiketaren sektorea, oro har. Bestalde, biztanleria migratzailearen lan-baldintzak aztertzeak nekazaritzako eta ostalaritzako enpleguan duen garrantzia ere erakusten da.

Parte-hartzaile guztiak bat datoz esatean barne araubideko etxeko zerbitzua dela biztanleria migratzailearen lan osasunaren ikerketa bideratzeko eremu nagusia. Era berean, gela zerbitzarien lan baldintzak bat datozen beste sektore bat dira. Bestalde, gizonen emakumeek baino lehentasan handiagoa

ematen diote ostalaritzari, eta emakumeek, berriz, gizonek baino lehentasun handiagoa ematen diote garbiketaren eta nekazaritza-enpleguaren sektoreari. Eta osasunerako arriskuen azterketari dagokionez, gizonen eta emakumeen artean kontraturik gabeko langileen garrantzia errepikatzen da, ondoren, eraikuntzaren sektorea dator, parte hartzen duten gizonen iritziaren kasuan, eta adinekoen zaintzaren sektorea, emakumeen kasuan. Era berean, hoteleko eta etxeko zerbitzarien sektoreetan nolabaiteko adostasuna dago ikerketan parte hartu duten gizonen eta emakumeen aldetik.

53. grafikoa. Adituek (0-100) lan-baldintzei dagokienez ikerketarako lehentasunezkoak diren sektore edo lanbideei esleitutako puntuazioen batez bestekoa




Iturria: norberak egina

Azkenik, osasunerako arriskuei dagokienez, lehentasunezkoak izan da kontraturik gabeko langileen egoera ikertzea, eta egoera hori, aldi berean, zeharka gertatzen da hainbat okupazio-sektoreetan. Garrantzitsutzat jotako gainerako lanbideak, gainera, oso lotuta daude enplegu informalarekin, hala nola adinekoen zaintza edo etxeko zerbitzua, bereziki garrantzitsuak

baitira emakume migratzaileen artean; eraikuntza, riderrak (bizikletaz etxez etxeko banatzaileak), edo online salmentako banatzaile orokorrak, bereziki maskulinizatutako eta arrazializatutako okupazioak dira.

54. grafikoa. Adituek (0-100) osasunerako arriskuei dagokienez ikerketarako lehentasunezko sektoreei edo lanbideei emandako puntuazioen batez bestekoa



5.2. Datu-bilketa hobetzeko proposamenak

Jarraian, datuak erregistro eta inkesta desberdinetan hobeto biltzeko proposamen batzuk aurkezten dira (lan-istripu edo gaixotasun profesionala, lan-baldintzei buruzko inkestak, jatorri migratzaileko biztanleei zuzendutako inkestak, eta abar), proposamen horiek, lehenik eta behin, jatorri migratzaileko pertsonen egoera hobeto identifikatzen eta ikusarazten lagunduko lukete, aztergai dugun eremu horretako informazio-iturrien barruan, eta, bigarrenik, biztanleria horren berezko prozesu sozialak hobeto ulertzen lagunduko lukete, haien lan-osasuna aztertzeke garrantzitsuak baitira. Proposamen

horiek Delphi metodoaren bidez identifikatu dira, bai eta berrikusitako bibliografian eta ikerketa-taldeak gaian duen esperientzian ere.

Lan osasuneko datu-iturrietan informazioa sartzea

Lehenik, kontuan hartu beharreko hainbat alderdi daude migratzaileen eta/edo arrazializatuen identifikazioari dagokionez. Hala, ezinbestekoa da «jaiotze-herrialdea» aldagaia datu-iturri guztietan sartzea. Batzuetan, langileen migrazio-estatusaren proxy gisa «nazionalitateko herrialdea» aldagaia erabiltzen da, lan istripuen eta gaixotasun profesionalen erregistroen kasuan bezala. Hala ere, nazionalitateko herrialdea ez da migratzaileen egoerari buruzko kalitatezko informazioa, espainiar nazionalitatea eskuratzeko prozesuak direla eta; izan ere, nazionalizatutako ibilbide migratzaileak dituzten biztanleak ikusezin bihurtzen ditu.

Gainera, migratzaileak identifikatzeko aldagaia hainbat informazio iturriren artean homogeneizatu behar da; izan ere, horietako batzuek «jaiotza-herrialdearen» arabera datuak sortzen dituzte, eta beste batzuek, aldiz, «nazionalitateko herrialdearen» arabera datuak, eta konplexua eta nahasia da biztanleria horren egoera lan-osasuneko hainbat gairi dagokienez alderatzea. Homogeneizazio horrek, gaur egun ez daudetan «jaiotze-herrialdea» aldagaia sartzeari gain, datuak modu estandarizatuan biltzea dakar, hau da, herrialdeen nazioarteko kodifikazioen arabera (ikus ISO 3166-1).

Bestalde, gure testuinguruan gero eta handiagoa da lan-adin aktiboan migratzaileak ez diren baina arrazializatuta dauden pertsonen presentzia, bai eta gehiengo ez diren jatorri etnikoak ere, kasu askotan migrazio jatorriko pertsonen antzeko lan-baldintzak eta osasun-arriskuak jasaten baitituzte. Horregatik, gero eta beharrezkoagoa da pertsonen arrazari eta jatorri etnikoari buruzko informazioa estatistika ofizialetan sartzea (bai inkestetan, bai erregistroetan). Orain arte, informazio mota hori Espainiako Estatuko estatistika-sisteman sartzeko Europak emandako gomendioak gorabehera, oraindik ez da erregularatasunez jasotzen aldagai hori. Gainera, informazio hori modu estandarizatuan eta sistematizatuan jasotzeko modua ere ez da unibokoa, eta hainbat forma daude, hala nola aurrez definitutako kategorietako autoidentifikazioa, autorreporte askea edo hirugarrenen arabera sailkapena. Hainbat testuingurutan, hala nola Estatu Batuetan edo Latinoamerikan, arrazari eta etniari buruzko informazioa testuinguru horiei erantzuten dieten moduetan biltzen da, eta, beraz, informazio hori ezin da zuzenean Europako testuingurura edo Euskal Autonomia Erkidegotik hurbilen dagoen testuingurura eraman. Ildo horretan, Berdintasun Ministerioa eta, zehazki, Tratu Berdintasunerako eta Arraza

Aniztasun Etnikorako Zuzendaritza Nagusia urratsak ematen ari dira azken urteotan, sistematizatzeari begira. Beraz, etorkizun hurbilean pertsonen jatorri etnikoari buruzko aldagaiak txertatzean aurrera egitea espero da, bai autohautemandako etniari dagokionez, bai hirugarrenek esleitutako etniari dagokionez, eta urrats horiek lan osasunari buruzko informazio iturrietan ere eman beharko dira.

Bigarrenik, biztanleria migratzailearen ezaugarriei dagokionez, beharrezkoa da haren lan-egoerari berez lotutako alderdien berri ematen duten beste aldagai batzuk sartzea, hala nola administrazio-egoera, hau da, bizileku eta lan baimenen motak, edo irregulartasun edo nazionalizazio egoerak helmugako herrialdean dituzten ala ez identifikatzen ahalbidetzen duena. Era berean, garrantzitsua da bizilekuko hizkuntzaren ezagutzari buruzko informazioa biltzea, faktore horrek neurri handi batean baldintzatzen baititu biztanleria migratzailearen laneratzea eta lan-baldintzak. Aldagai multzo horren barruan, gomendagarria litzateke helmugako herrialdean emandako denborari edo migrazioetik igarotako denborari buruzko informazioa izatea.

Biztanleria migratzailearen eta/edo arrazializatuaren lan osasuna hobeto ulertzeko balio dezakeen hirugarren informazio-mota bat osasunaren beste gizarte-baldintzatzaile batzuekin lotutakoa da, hala nola bizitoki egoerarekin, gizarte-laguntzako sarearekin, familia kargen egoerarekin edo osasun-txartela izatearekin. Bestalde, garrantzi handiko elementutzat jotzen da laneko eskubideen edo laneko osasuna babesteko neurrien ezagutzari buruzko informazioa. Azkenik, beharrezkoa da laneko diskriminazioari buruzko pertzepzioa jasotzea, bereziki arrazari edo jatorriari lotutako gaiekin lotuta.

Datu-iturrietan biztanleria migratzaileari buruzko informazioa sartzea

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak egindako Atzerritar Jatorriko Biztanleriari buruzko Inkesta (EPOE) bezalako kalitate handiko informazio-iturriak daude, biztanleria horrek lan-merkatuan duen egoerari buruzko datu oso aberatsak ematen dituztenak. Hala ere, inkesta honetako galdetegiak zenbait aldagai jasotzen ditu, bai enplegu baldintzei buruzkoak, bai lan baldintzei buruzkoak, baita egokitu litezkeen lan-arriskuei buruzkoak, Euskadiko Lan Baldintzen Inkestatik (LBI) datozen datuekin alderatu ahal izateko.

Horrela, EPOEk LBIren galderak erabil ditzake honako hauek aztertzeko: lanbide egoera, kontratuarekin lotutako baldintzak, gizarte segurantzako alta, enplegu aniztasuna, lanaldiak, soldata, bai eta laneko arriskuei buruzko gaiak ere, hala nola segurtasuna, higiena, ergonomia eta psikosozialak.

6. Ondorioak

Jarraian, egindako azterketa mota bakoitzerako txostenaren emaitza nagusiak laburtuta aurkeztuko ditugu.

Lan baldintzak eta lan arriskuekiko esposizioa

Biztanleria gehiena sektore pribatuko soldatapekoa bada ere, ezberdintasun nabarmenak daude biztanleria autoktonoaren eta biztanleria migratzailearen artean; azken horrek presentzia txikiagoa du sektore publikoan, eta etxe partikularreko soldatapeko gisa presentzia handiagoa du. Izan ere, egoera profesional hori, batez ere, etxeko zerbitzuarekin eta zaintza zerbitzuarekin lotuta dago, eta emakume migratzaileak emakume autoktonoak baino askoz presentzia esanguratsuagoa dute.

Era berean, biztanleria migratzailea lan-merkatuan mendeko kokatzen da, lanbide kategoria profesional baxuetan, bereziki peoietan, nabarmenago emakume migratzaileetan gizonetan baino. Bestalde, biztanleria autoktonoak lanbide kategorien aniztasun zabalagoa du, eta erdi mailako edo goi mailako tituludunen proportzioa handiagoa da.

Lanaren edukiari dagokionez, biztanleria autoktonoa zeregin teknikoetan, zientifikoetan, osasunean eta irakaskuntzan nabarmentzen da, biztanleria migratzailea, berriz, ostalaritzako, zaintzako, garraioko eta garbiketako sektoreetan gehiago biltzen da. Garrantzitsua da, halaber, antolaketa, zuzendaritza eta kontroleko zereginetan dagoen desberdintasuna, bertan, biztanleria autoktonoaren proportzio handiagoa nabarmentzen da (batez ere gizonen artean), biztanleria migratzaile eskasaren aurrean.

Kontratu-motari dagokionez, biztanleria migratzailearen egoera ere okerragoa da, kontratu mugagabea duten pertsonen proportzioa txikiagoa baita eta aldi baterako kontratazio maila handiagoa. % 4 inguruk dio kontraturik gabe lan egiten duela, maizago emakumeen artean (% 6). Biztanle migratzaileen artean ere lanaldi partzialeko kontratuak ohikoagoak dira, eta astean lan egindako orduen batez bestekoa txikiagoa da biztanleria autoktonoaren artean baino. Bi adierazleetan egoera okerragoa dute emakume migratzaileen kasuan, bai gizon migratzaileen kasuan, bai bertako emakumeen kasuan.

Migratzaileek enplegu baldintza okerragoak dituzten arren, lanarekin duten gogobetetze-maila biztanleria autoktonoa eta migratzailearen artean antzekoa da, % 75ek baino gehiago adierazi baitu lanarekin pozik edo oso pozik dagoela.

Lan-giroaren baldintzak aztertuta, ondoriozta daiteke ez dela desberdintasun handirik ikusten biztanleria autoktonoa eta migratzailearen artean; zikinkeriarrekiko esposizioan soilik ikusten dira ezberdintasunak, batez ere gizon migratzaileen artean.

Arrisku ergonomikoei dagokienez, biztanleria migratzaileak arrisku horiek jasateko arrisku handiagoa du, bereziki karga esfortzuekin, jarrerarekin eta oinez egindako joan-etorriekin lotuta. Zama astunak eramateari eta esfortzu fisikoak egiteari dagokionez ere, migratzaileen artean esposizioa handiagoa da. Emakume migratzaileen artean, bereziki, jantziz aldatzeko betebeharrak handiagoak dago, eta, maizago, pertsonak mugitzen dira. Mugimenduak errepikatzea ohikoagoa da migratzaileen artean autoktonoen artean baino, baina soilik gizonen artean. Aitzitik, biztanleria autoktonoak arrisku ergonomikoeki esposizio handiagoa du, hala nola ordenagailu-pantailari etengabe begiratzea edo ikusmena behartzea.

Bestalde, arrisku higienikoak biztanleria migratzailean ohikoagoak dira, keak eta hautsa arnasteko arrisku handiagoa baitute, batez ere gizon migratzaileetan, baina ezberdintasunak ez dira esanguratsuak. Emakume migratzaileen eta autoktonoen artean ezberdintasun adierazgarriak daude toxikoak arnasteari eta manipulatzeari dagokionez, bai eta gorputzeko jariatzen edo hondakinak manipulatzeari dagokionez ere.

Segurtasunari dagokionez, altueratik erortzea ohikoagoak dira gizon migratzaileen artean gizon autoktonoen artean baino, eta horiek erreduren eta erremintekin egindako zaurien arrisku handiagoa dute.

Arrisku psikosozialek esposizio desberdina dute jatorrizko lekuaren arabera, baina ez dugu biztanleria migratzailea beti egoera okerragoan aurkitzen. Ildo horretan, adibidez, biztanleria autoktonoak arrisku handiagoak ditu lan-edukiaren arabera, eta ohikoagoa da informazio asko gorde edo

zeregin konplexuak egin behar izatea. Hala ere, biztanleria migratzaileak zeregin monotonoekiko esposizio handiagoa du. Lan kargari eta erritmoari dagokionez ere, biztanleria autoktonoak lan-erritmoarekin gogobetetze-ez nabarmenagoa adierazten du, edo lana behar bezala egiteko denbora nahikorik ez duela adierazten du.

Lan denborari eta ordutegiei dagokienez, ez dago alderik biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren artean txandakako txandetan, gaueko lanean edo egunean 10 ordu baino gehiago lan egitean, baina bai asteko bi atsedengun erabilgarritasunari dagokionez. Egun horiek ez dira hain ohikoak migratzaileen artean eta, bereziki, emakumeen artean, gainera, larunbat eta igandeetan lan egitea ohikoagoa da.

Era berean, biztanleria migratzaileak erabakitze gaitasun txikiagoa du lan metodo eta hurrenkeran, bereziki gizonak, baina badirudi biztanleria autoktonoak adierazten duela laneko akatsengatik zigorak jasotzeko arrisku handiagoa duela.

Laneko kontrolari eta parte-hartzeari dagokionez, biztanleria migratzailearen proportzio txikiagoak etengabeko prestakuntzako ikastaroak egiten ditu, eta lana egiteko informazio argi eta nahikorik ez izateak gehiago eragiten die biztanle autoktonoei. Era berean, biztanleria migratzaileak gaitasun txikiagoa du ezusteko arazoak konpontzeko eta bere lanaren kalitatea balioesteko biztanleria autoktonoak baino.

Laneko indarkeria edo diskriminazio egoerei dagokienez, biztanleria migratzailearen proportzio txikiago batek bere lan-ingurunean horrelako egoerak ezagutzen ditu, jendearekiko tentsio-egoerei dagokienez bezala, horiek maizago jasotzen baitituzte autoktonoak.

Laneko garapen pertsonalaren sustapenari dagokionez, barne-sustapen hori txikiagoa da biztanleria migratzailearen artean, eta, gainera, ez dago hain gustura egoera horrekin.

Ez da ezberdintasun esanguratsurik ikusten biztanleria autoktonoa eta migratzailearen arteko ordu bateragarritasunari dagokionez, eta loari dagokionez, laneko kezkak eragin handiagoa dute biztanleria autoktonoaren lan migratzailearenean baino.

Laneko segurtasun eta osasun praktiketan desberdintasunak ikusten dira biztanleria autoktonoa eta migratzailearen artean, bai biztanleria migratzaileak lan egiten duen enpresetan azterketa medikoak maila txikiagoan egiteari dagokionez, bai laneko segurtasun eta osasunari buruzko prestakuntza maiztasun txikiagoari, arrisku fisiko eta psikosozialen ebaluazio txikiagoari eta prebentzio planak gutxiago egiteari dagokionez. Prebentzio praktika horietan

ezberdintasunak are handiagoak dira jatorri desberdineko emakumeen artean, gizonen artean baino.

Lan-istripuak

Lan istripuetan ezberdintasunak daude atzerritarren eta nazionalen artean, eta aldaerak daude sexuaren arabera. Gizonen artean, istripu-tasa % 37 handiagoa da atzerritarren artean nazionalen artean baino; emakumeen artean, berriz, % 9 txikiagoa da atzerritarren artean nazionalen artean baino. Adin-desberdintasunengatik doitzean, desberdintasunak mantendu egiten dira, nahiz eta emakumeen artean atzerritarren aldeko arrakala are gehiago handitzen den, atzerriko emakumeen istripu-tasa espainiarrena baino % 17 txikiagoa izanik.

Lan-istripuetan dauden ezberdintasunak adinaren arabera aldatu egiten dira, emakume atzerritar eta nazional helduenen artean alde handiagoa dago, aldiz, gazteenen artean, eredu alderantzizkoa da eta atzerritarrentzat kaltegarria.

Istripu motaren arabera, gizonezkoetan, nazionalitatearen araberako ezberdintasunak lanaldiko istripuetan nabarmenak dira; emakumezkoetan, berriz, *in itinere* istripuetan ezberdintasun handiagoak hautematen dira.

Istripuaren larritasunaren arabera, atzerriko eta espainiar nazionalitatea duten pertsonen arteko ezberdintasunak istripu larrietan handiagoak dira, gizonen kasuan atzerritarren tasa espainiarrena baino bi aldiz handiagoa da, eta bikoitza baino zertxobait txikiagoa emakumeen kasuan.

Denbora bilakaerak erakusten du biztanleria atzerritarren istripu tasak gorakada handiagoa izan duela 2016az geroztik, bai COVID-19aren pandemiaren aurretik, bai ondoren, eta horrek atzerritarren eta nazionalen arteko aldeak handitu egin direla aditzera ematen du. Gorakada horren arrazoia ez da soilik nazionalitate herrialde bakoitzeko gizonen lan-istripuetan dagoen desberdintasunaren jarraitutasuna, baita emakume atzerritarren tasek gora egin izana ere, 2022an espainiarren berdina izaten amaitu baitute.

2016. urteaz geroztik, gorakada gertatu da lanaren garapenean gertatutako istripuetan, lanaldian, baina baita modu jarraian eta nabarmenean *in itinere* istripuetan ere, hau da, lanposturako joan-etorrietan. Izan ere, badirudi *in itinere* istripuen intzidentziaren igoeraren zati handi bat emakume atzerritarren tasa igoeraren ondorio dela.

Istripu larrien eta hilgarrien bilakaerak erakusten du istripu tasetan ezberdintasunak gora egin dutela biztanleria nazionalaren eta atzerritarren artean, eta igoera handiagoa izan dela bigarrean, eta, bereziki, gizonen kasuan.

Adin-taldeen arabera, istripu-tasaren bilakaeran ezberdintasunak ikus daitezke, sexuaren arabera desberdinak direnak. Hala, gizonen artean, bilakaera antzekoa da 30-49 urtekoen eta 50-64 urtekoen taldean, baina gazteenen artean, badirudi tasaren jaitsiera handiagoa dela. Emakumeen artean, atzerritar gazteenek tasa handiagoa dute nazionalak baino, eta antzeko balioak dituzte tarteko adin-taldean, eta maila baxuagoak adinakoen artean.

Gaixotasun profesionalak

Gaixotasun profesionalak ez dira hain ohikoak atzerritarren artean, emakume gazteagoetan izan ezik, tasa gordinek eta estandarizatuak adierazten duten bezala. Atzerriko gizonen artean, gaixotasun tasa espainiarren artean baino % 43 txikiagoa da, eta emakumeen artean, berriz, % 45 txikiagoa, adin nagusiagoetan ezberdintasun handiagoak daude.

Tasetan nazionalitatearen araberako ezberdintasunak aldatu egiten dira begirada jartzen dugun adin-taldearen arabera. Hala, 16-29 urteko taldean, nazionalitate espainiarra eta atzerritarra duten pertsonen artean tasak antzekoak dira, baina zertxobait handiagoak emakume atzerritarren artean. Hala ere, 30-49 urtekoen eta 50-64 urtekoen taldean ezberdintasun nabarmenak daude, gaixotasun intzidentzia handiagoa dute gizon eta emakume nazionalak. Biztanleria nagusiagoan, nazionalen eta atzerritarren arteko aldea are handiagoa da emakumeen artean.

2016-2022 aldiko bilakaerak erakusten du pandemiaren aurreko gorakada, 2020an beherakada eta 2022an gorakada izan dela. 2016 eta 2022 bitartean, tasak biztanleria nazionalen % 7,4 murriztu dira eta % 11,3 atzerritarrean.

Pandemiaren osteko denbora bilakaerak, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak kontuan hartuta, gizon eta emakume nazionalen tasa pixka bat igo dela erakusten du, eta antzera emakume atzerritarren kasuan, aldiz, gizon atzerritarren artean, tasak nahiko ezegonkorak dira, 2021ean gorakada handia izan zen, eta, ondoren, neurri handi batean murriztu zen 2022an.

Lehentasunezko ikerketa-ildoak

Biztanleria migratzailearen lan-osasunari buruzko lehentasunezko ikerketa-ildoak identifikatu ziren, eta bi gai handitan sailka daitezke: 1) Biztanleria migratzailearen eta autoktonoaren arteko ezberdintasunak, eta biztanleria migratzailearentzat interes berezia duten lan-arriskuen eraginpean egotea; eta 2) Araudien eta lan-harremanen hainbat alderdiren eragin desberdina.

Gaien lehen multzoan, arrisku psikosozialak eta istripuen ezberdintasunak aztertzea lehenetsi zen, istripuetan, gaixotasun profesionaletan eta laneko hilkortasunean. Lehenetsiak ezberdinak izan ziren adituen sexuaren arabera, gizonek arrisku fisiko gehiago lehenetsi zituzten, eta emakumeek arrisku psikosozialak eta desberdintasunak nabarmendu zituzten

Bigarren taldean, araudiei eta lan-harremani dagokienez, lan-merkatua arautzen duten arauen eragin desberdina ikertzearen garrantzia nabarmendu zen, baita osasun-zerbitzuetarako sarbidean dauden oztopoak eta diskriminazioa aztertzearen garrantzia ere.

Gainera, genero-ikuspegitik interes berezia duten ikerketa-ildo batzuk identifikatu eta lehenetsi ziren. Alde batetik, arraza/etnia arteko azterketa intersektionala eta generoaren analisiaren garrantzia nabarmendu zen biztanleria migratzailearen lan-baldintzen azterketan, etxeko enpleguko lan-baldintzen azterketan eta emakume migratzaileek aurrez aurre dituzten lana eta familia bateragarri egiteko egoeretan. Adituen artean desadostasunak egon ziren, eta gizonen artean nabarmendu zen garrantzitsua zela gaixotasun profesionalen tipifikazioa berrikustea, eta emakumeen artean, berriz, azterketari lotutako alderdiak, intersektionalitatearen ikuspegitik eta etxeko enpleguaren baldintzei dagokienez.

Azkenik, ikerketa egitea beharrezkoena duten sektore edo lanbide nagusiak identifikatu eta lehenetsi ziren. Lan-baldintzekin lotutako gaietan, lehenetsiak eman zitzaizkien barne-erregimenean etxeko zerbitzuari, gela zerbitzari, garbiketari, nekazaritzako enpleguari eta ostalaritzari. Eta lan-arriskuei dagokienez, hainbat sektoretan kontraturik ez duten langileak ikertzeko beharra nabarmendu zen, bai eta adinekoak zaintzeko eremuak, etxeko zerbitzua, eraikuntza eta banatzaileak ere.

Datuak biltzeko hobekuntzak

Lan osasuneko datu-iturrietan migratzaileak eta/edo arrazializatuak identifikatzeko prozesuak funtsezko hainbat alderdi kontuan hartu behar ditu. Funtsezkoa da «jaiotze herrialdea» aldagaia datu-iturri guztietan sartzea; izan ere, «nazionalitate herrialdea» aldagaia ez du zehatz-mehatz islatzen migrazio estatusa, espainiar nazionalitatea eskuratzeko prozesuak direla eta. Gainera, arraza eta jatorri etnikoari buruzko informazioa sartzea gero eta erabakigarriagoa da, migratzaileak ez diren baina arrazializatuta dauden pertsonen migratzaileen antzeko baldintzei aurre egin diezaieketelako.

Biztanleria migratzailearen ezaugarritze zehatzagoa egiteko, beharrezkoa da iturrietan administrazio egoerarekin, hizkuntzaren ezagutzarekin eta

herrialdean emandako denborarekin lotutako datu aldagarriak sartzea, besteak beste. Era berean, garrantzitsua da osasunaren baldintzatzaile sozialei buruzko informazioa kontuan hartzea, hala nola etxebizitza, gizarte laguntzako sarea, familia kargak eta osasun-txartela edukitzea. Halaber, lan-eskubideen ezagutzari buruzko datuak biltzearen garrantzia nabarmentzen da, bai eta arraza edo jatorri arrazoiengatiko lan-diskriminazioaren pertzepzioari buruzkoak ere.

Zehazki, datu-iturriei dagokienez, gaur egun biztanleria horri buruzko aberastasun handiko datuak eskaintzen dituen Atzerritar Jatorriko Biztanleriaren Inkestak (EPOE) bere galdetegia egokitu beharko luke, Euskadiko Lan Baldintzen Inkestarekin (LBI) alderatu ahal izateko.

7. Erreferentzia bibliografikoak

- Ahonen, E. Q., & Benavides, F. G. (2006). Risk of fatal and non-fatal occupational injury in foreign workers in Spain. *Journal of Epidemiology and Community Health*, 60(5), 424 LP - 426. <https://doi.org/10.1136/jech.2005.044099>
- Ahonen, E. Q., López-Jacob, M. J., Vázquez, M. L., Porthé, V., Gil-González, D., García, A. M., Ruiz-Frutos, C., Benach, J., & Benavides, F. G. (2010). Invisible work, unseen hazards: The health of women immigrant household service workers in Spain. *American Journal of Industrial Medicine*, 53(4), 405-416. <https://doi.org/https://doi.org/10.1002/ajim.20710>
- Alberti, A. V., Pastor, M., & Pedreño, A. (2023). «Cuerpos rotos», «cuerpos descartables». Desgaste corporal en los procesos de salud-enfermedad entre los jornaleros y las jornaleras inmigrantes de los enclaves de agricultura intensiva del sur de España. *Revista Latinoamericana de Antropología del Trabajo*, 7(15). <https://doi.org/https://orcid.org/0000-0001-8164-0461>
- Arici, C., Ronda-Pérez, E., Tamhid, T., Absekava, K., & Porru, S. (2019). Occupational Health and Safety of Immigrant Workers in Italy and Spain: A Scoping Review. In *International Journal of Environmental Research and Public Health* (Vol. 16, Issue 22). <https://doi.org/10.3390/ijerph16224416>
- Artazcoz, L., Borrell, C., Cortàs, I., Escribà-Agüir, V., & Cascant, L. (2007). Occupational epidemiology and work related inequalities in health: a gender perspective for two complementary approaches to work and health research. *Journal of Epidemiology and Community Health*, 61(Suppl 2), ii39 LP-ii45. <https://doi.org/10.1136/jech.2007.059774>
- Ballester Arias, A. R., & García, A. M. (2017). Asociación entre la exposición laboral a factores psicosociales y la existencia de trastornos musculoesqueléticos en per-

sonal de enfermería: revisión sistemática y meta-análisis .91, e201704028. *Revista Española de Salud Pública*, 91, e201704028.

- Bauer, G. R. (2014). Incorporating intersectionality theory into population health research methodology: Challenges and the potential to advance health equity. *Social Science & Medicine*, 110, 10-17. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.socscimed.2014.03.022>
- Benach, J, Vives, A., Amable, M., Vanroelen, C., Tarafa, G., & Muntaner, C. (2014). Precarious Employment: Understanding an Emerging Social Determinant of Health. *Annual Review of Public Health*, 35(1), 229-253. <https://doi.org/10.1146/annurev-publhealth-032013-182500>
- Benach, Joan, Muntaner, C., Delclos, C., Menéndez, M., & Ronquillo, C. (2011). Migration and “Low-Skilled” Workers in Destination Countries. *PLoS Medicine*, 8(6), e1001043. <https://doi.org/10.1371/journal.pmed.1001043>
- Biswas, A, Harbin, S., Irvin, E., Johnston, H., Begum, M., Tiong, M., Apedaile, D., Koehoorn, M., & Smith, P. (2021). Sex and Gender Differences in Occupational Hazard Exposures: a Scoping Review of the Recent Literature. *Current Environmental Health Reports*, 8(4), 267-280. <https://doi.org/10.1007/s40572-021-00330-8>
- Biswas, Aviroop, Harbin, S., Irvin, E., Johnston, H., Begum, M., Tiong, M., Apedaile, D., Koehoorn, M., & Smith, P. (2022). Differences between men and women in their risk of work injury and disability: A systematic review. *American Journal of Industrial Medicine*, 65(7), 576-588. <https://doi.org/https://doi.org/10.1002/ajim.23364>
- Brekke, I., & Schøne, P. (2014). Long Sickness Absence Differences Between Natives and Immigrant Workers: The Role of Differences in Self-reported Health. *Journal of International Migration and Integration*, 15(2), 217-235. <https://doi.org/10.1007/s12134-013-0276-6>
- Campos-Serna, J., Ronda-Pérez, E., Artazcoz, L., Moen, B. E., & Benavides, F. G. (2013). Gender inequalities in occupational health related to the unequal distribution of working and employment conditions: a systematic review. *International Journal for Equity in Health*, 12(1), 57. <https://doi.org/10.1186/1475-9276-12-57>
- Comisión para Reducir las Desigualdades Sociales en Salud. (2010). Avanzando hacia la equidad: propuesta de políticas e intervenciones para reducir las desigualdades sociales en salud en España. In *Ministerio de Sanidad y Política Social*. https://www.msbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/promocion/desigualdadSalud/docs/Propuesta_Politiclas_Reducir_Desigualdades.pdf
- de Diego-Cordero, R., Vega-Escano, J., Tarrío-Concejero, L., & García-Carpintero-Muñoz, M. Á. (2020). The Occupational Health of Female Immigrant Caregivers:

- A Qualitative Approach. In *International Journal of Environmental Research and Public Health* (Vol. 17, Issue 21). <https://doi.org/10.3390/ijerph17217807>
- Escrivà, A. (2022). Chapter 26: Globalization and health: gender issues in temporary agricultural work (Huelva). In *The Elgar Companion to Gender Global Migration* (pp. 324-333). Edward Elgar Publishing. <https://doi.org/10.4337/9781802201260.00036>
- Font, A., Moncada, S., Llorens, C., & Benavides, F. G. (2012). Psychosocial factor exposures in the workplace: differences between immigrants and Spaniards. *European Journal of Public Health*, 22(5), 688-693. <https://doi.org/10.1093/eurpub/ckr169>
- Hansen, H.-T., Holmås, T. H., Islam, M. K., & Naz, G. (2014). Sickness Absence Among Immigrants in Norway: Does Occupational Disparity Matter? *European Sociological Review*, 30(1), 1-12. <https://doi.org/10.1093/esr/jct007>
- Hargreaves, S., Rustage, K., Nellums, L. B., McAlpine, A., Pocock, N., Devakumar, D., Aldridge, R. W., Abubakar, I., Kristensen, K. L., Himmels, J. W., Friedland, J. S., & Zimmerman, C. (2019). Occupational health outcomes among international migrant workers: a systematic review and meta-analysis. *The Lancet Global Health*, 7(7), e872-e882. [https://doi.org/https://doi.org/10.1016/S2214-109X\(19\)30204-9](https://doi.org/https://doi.org/10.1016/S2214-109X(19)30204-9)
- López-Jacob, M. J., Ahonen, E., García, A. M., Gil, A., & Benavides, F. G. (2008). Comparación de las lesiones por accidente de trabajo en trabajadores extranjeros y españoles por actividad económica y comunidad autónoma (España, 2005). *Revista Espanola de Salud Pública*, 82(2), 179-187. <https://doi.org/10.1590/s1135-57272008000200004>
- Mahía, R., & Medina, E. (2022). *Informe sobre la Integración de la población extranjera en el mercado laboral español* (Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia (ed.)). Ministerio de Inclusión, Seguridad Social y Migraciones.
- Malhotra, R., Arambepola, C., Tarun, S., de Silva, V., Kishore, J., & Østbye, T. (2013). Health issues of female foreign domestic workers: a systematic review of the scientific and gray literature. *International Journal of Occupational and Environmental Health*, 19(4), 261-277. <https://doi.org/10.1179/2049396713Y.0000000041>
- Messing, K., & Mager Stellman, J. (2006). Sex, gender and women's occupational health: The importance of considering mechanism. *Environmental Research*, 101(2), 149-162. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.envres.2005.03.015>
- Messing, K., Punnett, L., Bond, M., Alexanderson, K., Pyle, J., Zahm, S., Wegman, D., Stock, S. R., & de Grosbois, S. (2003). Be the fairest of them all: Challenges and recommendations for the treatment of gender in occupational health research. *American Journal of Industrial Medicine*, 43(6), 618-629. <https://doi.org/https://doi.org/10.1002/ajim.10225>

- Ministerio de Sanidad Consumo y Bienestar Social. (2019). *Guía para la Vigilancia de la Salud del Personal de Hostelería* (Ministerio de Sanidad Consumo y Bienestar Social (ed.)). <https://www.sanidad.gob.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/docs/hosteleria.pdf>
- OECD/European Union. (2016). *Recruiting Immigrant Workers: Europe 2016*. OECD. <https://doi.org/10.1787/9789264257290-en>
- Porru, S., & Baldo, M. (2022). Occupational Health and Safety and Migrant Workers: Has Something Changed in the Last Few Years? In *International Journal of Environmental Research and Public Health* (Vol. 19, Issue 15). <https://doi.org/10.3390/ijerph19159535>
- Ronda Pérez, E., Benavides, F. G., Levecque, K., Love, J. G., Felt, E., & Van Rossem, R. (2012). Differences in working conditions and employment arrangements among migrant and non-migrant workers in Europe. *Ethnicity & Health, 17*(6), 563-577. <https://doi.org/10.1080/13557858.2012.730606>
- Rubiales-Gutierrez, E., Agudelo-Suarez, A. A., López-Jacob, M. J., & Ronda-Pérez, E. (2010). Diferencias en los accidentes laborales en España según país de procedencia del trabajador. *Salud Pública de México, 52*, 199-209. https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0036-36342010000300003
- Salazar Martínez de Iturrate, P. (2019). Relaciones laborales neoliberales: la «subordinación ultra-contractual.» *Sociología Del Trabajo, 0*(95 SE-Artículos), 89-103. <https://doi.org/10.5209/stra.66444>
- Solar, O., & Irwin, A. (2010). *A conceptual framework for action on the social determinants of health. Social Determinants of Health Discussion Paper 2*. World Health Organization. <https://www.who.int/publications/i/item/9789241500852>
- Solé, M., Diaz-Serrano, L., & Rodríguez, M. (2013). Disparities in work, risk and health between immigrants and native-born Spaniards. *Social Science & Medicine, 76*, 179-187. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.socscimed.2012.10.022>
- Soler-González, J., Serna, M.-C., Bosch, A., Ruiz, M.-C., Huertas, E., & Rué, M. (2008). Sick leave among native and immigrant workers in Spain—a 6-month follow-up study. *Scandinavian Journal of Work, Environment & Health, 6*, 438-443. https://www.sjweh.fi/show_abstract.php?abstract_id=1288
- Stergiou-Kita, M., Mansfield, E., Bezo, R., Colantonio, A., Garritano, E., Lafrance, M., Lewko, J., Mantis, S., Moody, J., Power, N., Theberge, N., Westwood, E., & Travers, K. (2015). Danger zone: Men, masculinity and occupational health and safety in high risk occupations. *Safety Science, 80*, 213-220. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.ssci.2015.07.029>
- Sterud, T., Tynes, T., Mehlum, I. S., Veiersted, K. B., Bergbom, B., Airila, A., Johansson, B., Brendler-Lindqvist, M., Hviid, K., & Flyvholm, M.-A. (2018). A systematic review of working conditions and occupational health among immigrants

- in Europe and Canada. *BMC Public Health*, 18(1), 770. <https://doi.org/10.1186/s12889-018-5703-3>
- Theodore, N., Gutelius, B., & Burnham, L. (2018). Workplace Health and Safety Hazards Faced by Informally Employed Domestic Workers in the United States. *Workplace Health & Safety*, 67(1), 9-17. <https://doi.org/10.1177/2165079918785923>
- Urrego-Parra, H. N., Rodriguez-Guerrero, L. A., Pastells-Peiró, R., Mateos-García, J. T., Gea-Sanchez, M., Escrig-Piñol, A., & Briones-Vozmediano, E. (2022). The Health of Migrant Agricultural Workers in Europe: A Scoping Review. *Journal of Immigrant and Minority Health*, 24(6), 1580-1589. <https://doi.org/10.1007/s10903-022-01330-y>
- Utzet, M., & Valero, E. (2019). *Precariedad Laboral, Desempleo y Salud*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. <https://www.oseki.eus/areas/desigualdades-sociales-%0Aen-salud/>
- Varela-Ruiz, M., Díaz-Bravo, L., & García-Durán, R. (2012). Descripción y usos del método Delphi en investigaciones del área de la salud. *Investigación en Educación Médica*, 1(2), 90-95.
- Whitehead, M., & Dahlgren, G. (2007). *Concepts and principles for tackling social inequities in health: Levelling up Part 1*. World Health Organization. http://www.euro.who.int/__data/assets/pdf_file/0010/74737/E89383.pdf

Eranskina

Ezberdintasunak ikerketa-lerroak lehenestean dauden aldeak adituen sexuaren arabera

Lehenetsunezko ikerketa-lerro orokorrak parte-hartzailearen sexuaren arabera

		Gizonak	Emakumeak
Lehenetsi beharreko gaiak - desberdintasunak eta arriskuekiko esposizioa	1	Desberdintasunak lan-istripuetan, gaixotasun profesioaletan eta lan-hilkortasunean	Arrisku psikosozialak
	2	Segurtasun arriskuak	Informaltasunak eta osasun mentaleko prekaritateak eragindako desberdintasunak
	3	Arrisku psikosozialak	Desberdintasunak lan-istripuetan, lanbide-gaixotasunetan eta lan-hilkortasunean
	4	Soldata-arrakalan dauden genero desberdintasunak	Segurtasun arriskuak
	5	Arrisku higienikoak	Arrisku higienikoak
	6	Informaltasunak eta osasun mentaleko prekaritateak eragindako desberdintasunak	Arrisku ergonomikoak
	7	Arrisku ergonomikoak	Soldata-arrakalan dauden genero desberdintasunak
Lehenetsi beharreko gaiak - araudia eta lan-harremanak	1	Biztanleria migratzailearen lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen jakinarazpena	Lan-merkatua arautzen duten arauen eragin desberdina
	2	Diskriminazioa osasun-zerbitzuetarako sarbidean	Diskriminazioa osasun-zerbitzuetarako sarbidean
	3	Migrazio araudiaren ondorioak lan-baldintzetan	Lan eskubideen eta babes neurrien ezagutza-maila
	4	Lan eskubideen eta babes neurrien ezagutza-maila	Migrazio araudiaren ondorioak lan-baldintzetan
	5	Lan-merkatua arautzen duten arauen eragin desberdina	Biztanleria migratzaileari aplikatzen zaizkion lan kudeaketako enpresa-praktikak
	6	Biztanleria migratzaileari aplikatzen zaizkion lan kudeaketako enpresa-praktikak	Biztanleria migratzailearen lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen jakinarazpena
	7	Sindikatuaren papera lan-baldintzen defentsan	Sindikatuaren papera lan-baldintzen defentsan
	8	Biztanleria migratzaileak lan-kontentsazioko onurak eskuratzea	Biztanleria migratzaileak lan-kontentsazioko onurak eskuratzea

Lehentasunezko ikerketa-lerroak genero-ikuspegitik parte-hartzailearen sexuaren arabera

	Gizonak	Emakumeak
Lehenetsi beharreko gaiak - genero-ikuspegitik	1 GP tipifikazioa genero-ikuspegitik berrikustea	Arrazakeriaren eta matxismoaren elkargunea LBek osasunean duten eraginean
	2 Emakume migratzaileen lana eta familia bateragarri egiteko baldintzak	Etxeko enpleguko LBk osasun fisikoan eta psikologikoan duten eragina
	3 Emakume migratzaileen segregazio bertikala eta horizontala	Emakume migratzaileen segregazio bertikala eta horizontala
	4 Arrazakeriaren eta matxismoaren elkargunea LBek osasunean duten eraginean	Indarkeria motak (sexuala, fisikoa, psikologikoa), bereziki zainketen eta nekazaritzaren lan-eremuan
	5 Etxeko enpleguko LBk osasun fisikoan eta psikologikoan duten eragina	Emakume migratzaileen lana eta familia bateragarri egiteko baldintzak
	6 Lan-ikuskapenak barne-araubideko emakume langiletan	Laneko osasuna eta segurtasuna prostituzio-egoeran
	7 Indarkeria motak (sexuala, fisikoa, psikologikoa), bereziki zainketen eta nekazaritzaren lan-eremuan	Automedikazioari eta/edo gainmedikazioari lotutako arriskuak
	8 LBk emakume migratzaileen sexu- eta ugalketa-osasunean duten eragina	LBk emakume migratzaileen sexu- eta ugalketa-osasunean duten eragina
	9 Laneko osasuna eta segurtasuna prostituzio-egoeran	Lan-ikuskapenak barne-araubideko emakume langiletan
	10 Automedikazioari eta/edo gainmedikazioari lotutako arriskuak	GP tipifikazioa genero-ikuspegitik berrikustea

Lehentasunezko sektore eta lanbide espezifikoen lehenestea parte-hartzailearen sexuaren arabera

		Gizonak	Emakumeak
Sektore edo lanbide espezifikoak - lan-baldintzak	1	Barne araubideko etxe zerbitzua	Barne araubideko etxe zerbitzua
	2	Gela zerbitzariak	Garbiketa
	3	Ostalaritza	Gela zerbitzariak
	4	Garbiketa	Nekazaritzako enplegua
	5	Sasoiko enplegua	Ostalaritza
	6	Nekazaritzako enplegua	Sasoiko enplegua
	7	Basogintza	Industria metalurgikoko y logistikoko azpikontratak
	8	Arrantza	Arrantza
	9	Industria metalurgikoko y logistikoko azpikontratak	Basogintza
Sektore edo lanbide espezifikoak - osasunerako arriskuak	1	Kontraturik gabeko langileak	Kontraturik gabeko langileak
	2	Eraikuntza	Adinekoen zaintza
	3	Hoteleko zerbitzariak	Etxe zerbitzua
	4	Etxe zerbitzua	Hoteleko zerbitzariak
	5	Riders (etxez-etxekeo bizikleta banatzaileak)	Eraikuntza
	6	Adinekoen zaintza	Riders (etxez-etxekeo bizikleta banatzaileak)
	7	Online salmenta banatzaileak	Online salmenta banatzaileak
	8	Zerbitzu soziosanitario formalak	Zerbitzu soziosanitario formalak